



ARGIA



PROTESTA GLOBALA

GIPUZKOAN ERE PIZTU DA



JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren "BIZI BARATZEA" liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin



ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

☎ 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Estitxu Garai Artetxe
- 20 Xabier Mendiguren Elizegi
- 21 Mikel Irizar
- Joanes Etxebarria



Jean-René Etchegaray Baionako auzapez eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko presidentearekin mintzatu gara Ipar Euskal Herriko Herri Elkargoa sortzeak eman dezakeenaz. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
LAURA SHINE
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Isaac Xubín, idazle galiziarra: “Euskararik gabe, ez dakit non nintzatekeen oraintxe” / Miel A. Elustondo
- 22 | Gipuzkoa Zutik: Arnasa hartu nahi dutenen plaza / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 29 | Oporretako berezia: Teknologia motxilan sartu zaigu /
Xabier Letona, Onintza Irureta Azkune, Urko Apaolaza Avila, Unai Brea, Mikel Garcia Idiakez
- 37 | Jean-René Etchegaray: “Tribunalek ezin dute erabaki herri demokratikoen orde” / Mikel Asurmendi
- 44 | Ventana al Valle: Kubatar nortasunaren leihoak zabalik Gernikako Astran / Jabi Zabala

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Aier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitx Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako Estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



eoak
Euskarari

euskarak

Malerreka
#2dEmanEuskarari

Leitzalde
Erribera
#2dEmanEuskarari

zamaldea
EmanEuskarari

Erribera-Tutera
#2dEmanEuskarari

barra

PANORAMA

Barkos, bultza! Hemen duzu laguntza!

Ekainak 4, *Eman bidea euskarari* manifestazioa Iruñeko kaleetan, Kontseiluak antolatuta. Duela urte batzuetako deiadarrak manifestazioetan: "Aski da!", "Baztertzeko gaituzue!", "Ez dago eskubiderik!". Larunbateko lelo errepikatua: "Barkos, bultza! Hemen duzu laguntza!". Euskaltzaleek mezua argia dute aldaketaren gobernuarentzat: erasoen aurrean babestuko zaituztegu, baldin eta hizkuntza politikan neurri ausartagoak hartzen badituzue. Barkos, bultza!

Argazkia: Jagoba Manterola / Argazki Press






**“Izugarria gaurkoa...
eta ez ahaztu: janez
handitzen da gosea”**

Juan Jose Ibarretxe
lehendakari ohia, Gure
Esku Dagok antolatutako
herri galdeketen egunean.

argia.eus/multimedia



**Jaialdi erraldoietan
ere, zero zabor**

Ahalegin eta bitartekoak jarriaz, festa handietan ere hondakinen kudeaketa burutsua egin daitekeela erakutsi zuten Usurbilgo Kilometroak'15-eko antolatzaileek.



**Transmisioa, Jalgi
ekimenean**

Jalgi egitasmoaren bosgarren egunean, euskal kultur sorkuntzaren transmisioari buruzko jardunaldiak egin zituzten.



Estrasburgok zortzigarrenenez zigortu du Espainia, tortura salaketak ez ikertzeagatik

Ane Urkola Agirrezabala

@irrikaz

Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak ondorioztatu du Espainiak ez zituela nahikoa ikertu Xabier Beortegik inkomunikazio egoeran Guardia Zibilaren eskutik jasandako tortura salaketak. Europako Auzitegiak beste behin eskatu dio Espainiari hobetu dezala atxilotutako pertsonak artatzen dituzten auzitegi medikuen ikerketen kalitatea, eta arautegi bat sor dezala polizientzat, egoera horietan tratatu egokia izan dezaten.

Azken ebazpen hori kontuan hartuta, torturak ez ikertzeagatik Espainia zigortzen duten zortzigarren aldia da. Patxi Arratibelen tortura salaketa ez ikertzeagatik ere zigortu zuten 2015ean,

besteak beste; Beortegirekin batera atxilotu zuten Arratibel, eta aztugal hitza ezarri zuen deklarazioetako batean, jasandako tratatu txarrak salatzeke.

Tortura salaketa larriak

Xabier Beortegi 2011ko urtarrilaren 18an atxilotu zuten Ekinen aurkako polizia operazioan eta tortura larriak salatu zituen. Esan zuenez, Madrilera bidean mehatxatu, iraindu eta kolpatu egin zuten buruan, saihetsetan eta barrabiletan. “Poltsa” ezarri zioten eta elektrodoak aplikatzearekin mehatxatu zuten.

2011ko maiatzean jarri zuten salaketa Iruñeko Auzitegian, baina urtebete eskasera epaileak artxibatu egin zuten, nahikoa frogaz ez zegoela argudiatuta.

“Kutxabank espoliatua izan da, eta gaur egun ez du inolako kontrol publiko edo sozialik”

IRPH STOP GIPUZKOA PLATAFORMA



IRPH indizea indargabetzearen aldeko proposamena onartu zuen Eusko Legebiltzarrak otsailan, eta Kutxabankekin haren inguruan duen jarreraz azalpenak emateko zen bankuko presidente Gregorio Villabeitia, baina uko egin dio Legebiltzarrean agertzeari, banku pribatua dela argudiatuta. Plataformak “larritzat” jo du erabakia eta salatu du agintariak “gezurra” esan duela “IRPH-aren aurkako epai irmorik” ez dagoela diotenean. IRPHSTOP.PLAZAN.NET (2016-05-31)



Droga debekatuen kontsumoa Europako Batasunean


Iturria: Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia. 2016ko txostena (2013ko datuetan oinarritua).

Infografia: Garbine Ubida Goikoetxea.



Droga debekatuen merkaturia Europako Batasunean:

24,3 mila milioi euro





BELARTZA 2 GELDITU PLATAFORMA

Belartzako obrak ilegalak direla onartu eta gelditu egin ditu Donostiako Udalak

Sara Arruabarrena / Ane Urkola

@s8ara / @irrikaz

Belartza industrialdean, "Añ-13.2 Cantera" delakoan, obrak gelditzeko agindua eman zieten ekainaren 1ean langileei, Donostiako Udalak eskatuta. Naturkon Gipuzkoako talde ekologisten elkarteak hilabeteak daramatza irregulartasunak salatzen eta obrek Lurzoruaren Legea "urratzen dutela" ohartaraziz.

Donostiako Udaleko Hirigintza zinegotzi Enrique Ramosek onartu du "Belartza 2" industrialdean martxan dauden obrak ilegalak direla. Orain arte jasotako salaketak gezurtatzea leporatu diote talde ekologistek. Ramosek bere hitzak zuzendu ditu eta adierazi du gaur arte egindako obrak ez direla "prestatze lanak", ez baitaude esleituta. Gauzak horrela, ez da lanik egingo gutxienez obrak esleitu arte -maiatzaren 26an atera ziren lehiaketara-.

Balio natural esanguratsuko gunea, arriskuan

Lehenengo salaketetatik bi hilabete igaro dira. Naturkonek Gipuzkoako hamahiru talde natur zale biltzen ditu

eta bere manifestuan dio balio natural "esanguratsua" aurkitu dutela Belartza inguruan, babestutako habitata eta "mehatxupean" dauden hainbat fauna espezie, esate baterako. Industria gunek suntsituko luke "balio natural, paisajistiko eta agrológico handiko eremua, eta murriztu egingo litzateke espezie askoren habitata".

Industria gunek hainbat lege urratzen dituela ere jakinarazi dute: 2010ean onartutako Hiria Antolatze Plan Orokorreko (HAPO) Ingurumen Garapenerako Txostena, Espainiako Estatuko Bioaniztasun Legea eta EAEko Natura Kontserbatzeko Legea, besteak beste.

"Donostian beste industria gunea bat eraikitzea zentzugabekeria hutsa da", azpimarratu dute, hirian erdi hutsak dauden hainbat industria gunea daudela gogora ekarriz. Horregatik, Belartza poligonoa ez eraikitzeaz gain, eskatu dute gunea babesteko beharrezko diren neurriak hartzeko prozesu administratiboak martxan jar daitezela. Belartzako ingurua Unanue Natur Gunean txerta dadila ere eskatu dute, "atzera bueltarik gabe kaltetua eta mehatxatua" izan ez dadin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gure makina erremintari nazioarteko aitortza



Juan Mari Arregi

Beti gaude tentaturik gizartearen alde ilunena ikusi eta salatzeke. Batzuetan, gure burua gehiegi larritzen dugu, baina badaude alderdi positiboak nabarmentzeko eta promozionatzeko modukoak. Euskal Herriko makina erreminta Europako eta munduko industria-
ren puntan dabil. Beti ego izan da, krisiak faktura pasarazi dion arren. Joan den astean Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre erakustazokan egindako Biurtekoak beste behin agerian utzi du hori. Hogeita zazpi herrialdetako 1.533 enpresa izan dira bertan, eta euren potentzialtasun eta berritasunak erakutsiz, euskal industriako makina erremintari aitortza egin diote Biurtekora etorriaz.

Gure makina erremintak historia hurbilean krisien eragina jasan izan du hainbat momentutan, enpresak itxi dira eta milaka lanpostu galdu. BEC-eko Biurtekoan eskainitako ehunka produktu berri eta modernorekin, baina, harro esan dezake prest dagoela robotizatzeak, digitalizatzeak eta 3D inpresio harrigarriak ekarriko duen industri iraultza berri honetan parte hartzeko.

Europar eta mundu osoan lehiatzeko gai den sektorearen biziberri-tze eta modernizazioak balio behar luke Euskal Herrian enplegu eta garapen sozialaren motor izateko. Makina erreminta mantentzeko eta garatzeko hil ala bizikoak izan ziren eta oraindik ere badiren lanbide eskolek jarraipena izan behar dute. Langabezia dagoen gazteriaren zati bat bertan saiatu daiteke eta profesionalki hezi, horrela etorkizun handia duen sektore batean enplegua lortzeko.

Ea administrazioek hori guztia kontuan izaten duten.

More koloreko pintadaz esnatu dira zenbait elkarte gastronomiko

TOLOSA. Tolosako Gure Kaiola, Batasuna, Txinparta eta Aiz-Orratz/Veleta elkarte gastronomikoetako ateetan aldarrikapen pintadak margotu dituzte; emakumeak baztertzea egozten diete mezuek. *Matxistak* diote denek, eta bada *Sukalderaino sartuko gara!* dioenik ere. Batasuna elkarteak kideei "oso gaizki" iruditu zaie ekintza: "Hemen ez dago debekurik emakumeak sar daitezen". Gaur egun, Tolosako elkarte horietan ez dago emakumezko bazkiderik.



TOLOSALDEKO ATARIA

Aroztegiaren aurka bozkatu dute baztandarrek

Jon Ander De la Hoz Arregi
@delarregi

Hirigintza planari ezezkoa eman dio herritarren %80ak. Hautesleen %27ak hartu du parte Baztango Batzar Orokorrek antolatutako galdeketa.

Datuak

Bozkatzera deituta 6.169 herritarretatik 1.707k hartu du parte. %80ak ezetz bozkatu du, %14,5ak alde, eta %2,3k zuri. Galdeketa Baztango 733 biztanleren eskariz eta EH Bilduren babesaz egin da. Geroa Bai, PSN eta PPN-k ez dute galdeketa onartu.

Gobernuak zer?

"Ikusita galdeketa saihesteko Nafarroako Gobernuak egin dituen ekinaldiak, onak dira datuak eta emaitzak", diote antolatzaileek. Joseba Otondo Baztango alkatearen esanetan, herritarren nahia "argi" geratu da; "orain Gobernuak erabaki behar du zer egiten duen".

Proiektua

Aroztegia Jauregia SM enpresaren planen arabera, luxuzko 228 etxebizitza, lau izarreko hotela, spa bat eta golf zelaia eraikiko dira Lekarozen, eta 700 lagunentzako urbanizazioa sortu. Egun, 320 biztanle inguru bizi dira bertan.

ERREFUXIATUAK



700

lagun baino gehiago hil dira hiru eguneko tartean Mediterraneo itsasoan, hiru itsasontzik hondoa jo ondoren, Acnurren arabera. Mugarik Gabeko Medikuek elkarrekin 900 pertsona baino gehiago direla adierazi du.

9

errefuxiatu siriar iritsi berri dira Donostia eta Gasteizera.



ERRENTA UNIBERTSALAZ ERREFERENDUMA SUIZTAN

Erreferendumean parte hartu dutenen %76,9k ezetz esan dio Suiztan oinarritzko errenta unibertsala ezartzeari, baina pozik daude galdeketa bultzatzaileak, eztabaida mahai gainean jarri dutelako. Neurria hainbat herrialdetan ari dira zabaltzen eta debatitzen.



450 EUROKO ZIGOR ESKAERAK

2013an, AHTren aurkako eta tartalarien aldeko ekitaldi batera bertaratu ziren 200 lagun, eta 33k isuna jaso zuten. Orain Iruñeko Administrazio Epaitegiak isun horien inguruan erabakiko du.



KATALINA ERAUSO, BAIONAN

Katalina Erauso emakume-gizonari buruzko pastoralaren estreinatu dute Baionan. Lehenengo aldia da emakume baten inguruko pastoralaren emakume batek idatzia dela, eta hainbat emakumek zuzendua.

Kontsultak, Gipuzkoa Zutik, manifestazioak... bor-bor batzuk epelean



Xabier Letona

@xletona

BOZKATZEKO ESKUBIDEA zuten herritarren %30ak bozkatu du euskal estatuari buruzko galdeketa prozesuan. Gutxi da hori independentzia lortzeko, pausu handia ostera ibilbide horretan. Besterik gabe, duela hiru urte sortutako gizarte mugimendu xume batek antolatu duelako halako prozesu korapilatsua.

Bai, Gure Esku Dagok antolatu zuen erabakitzeako eskubidearen gainean Euskal Herriak ezagutu duen mobilizaziorik ikusgarriena, Durango eta Iruñea lotu zituen giza katea. Baina hau beste urrats bat izan da, hainbat arrazoiengatik eta bi bederen merezi du azpimarratzea: bat, halako kontsulta prozesu bat bideratzeko tresneria indartsu eta ondo olioztatua behar da, juridikoki, politikoki eta sozialki; bi, mobilizazio-festa batetik independentzia edo burujabetzaren alde bozkatzera jotzea jauzi oso garrantzitsua da.

Orain lasai asko egin den bezala, egin daiteke Euskal Herri osoan 2019an edo 2020an. Gutxieneako baldintzarik baldin bada behintzat. Ez duela benetan erabakitzeako balio? Jakina, baina balio du herritarren borondatea gaur egun islatu daitekeen ahalik eta era gardenean adierazteko, eta horrek balio politiko handia du.

Kataluniako adibidea oso argia da: uste dut 2014ko azaroko erreferendumaren atarian inork gutxik pentsatuko zuela ekitaldi hark etorkizunari begira hartuko zuen indar sinbolikoa. Zer-gatik? Gauza askorengatik, baina batez ere eskubidea zuten herritarren %47k bozkatu zuelako eta gainera Espainiako Konstituzio Auzitegiak debekatu egin zuenean. Kataluniako independentistenean bakarrik ez, data hura Madrileko bihotzean ere iltzatua geratu zen.

Bitxia da, gainera, ikustea noiz eman den hemengo emaitza interesgarri hau. Katalunian udalerrietako 2009ko kontsulten lehen olatuan %27ko partehar-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

tzea izan zuten, noiz eta Konstituzio Auzitegiak Estatutu B erria bapo orraztu ondoren, Katalunia Madrilgo zentralismoaren aurkako su-mendia zenean. Hemen, kontrara, emaitza hau etorri da independentismoa basamortuko zeharkaldia egiten ari denean.


Kontsulten estrategia hau, gainera, errepide eta estadioak gainezka jartzekoa baino lurtarragoa eta seguruagoa dela ikusi da. Oraingoak herrietan jendeen arteko igurtzi handia eskatzen du; kalean independentista edo soberanista ez diren herritarrengana hurbiltzen da -klabe funtsezkoa-; eta ez du termometro errazek neurtu dezaketene helburu kuantitatibo zehatzik. Hori bai, emaitza arrakastatsuek 2017 eta 2018ko erronkak zailtzen dituzte, konparaketarako datuak hor izango dira eta. Baina hor da koxka, ezta?

[JOAN DEN ASTEBURUAK] erakutsi du, halaber, independentziaren aldeko borrorak jadanik ez duela zergatik irentsi behar bestelako gizarte esparruen lana, elkar elika dezaketela baizik. 34 herritan euskal estatuaz galdetu zen; Baztanen Lekarozko Aroztegiako egitasmoaz egin zen kontsulta, eta herritarren %27k parte hartu zuen hartan, gehien-go oso handia kontra agertuz; Donostian Gipuzkoa Zutikek astebez Gipuzkoako Plazan irautea lortu zuen, gero eta herritar eta ilusio gehiago erakarritz gainera; eta Iruñean manifestazio oso jendetsuak euskaraz bizi nahi duela aldarrikatu zuen, aldaketaren instituzioak aldi berean akuilatu eta sostengatuz.

Badirudi bor-bor batzuk bederen ari direla sortzen euskal gizarte erosoaren epelean. ■

KATOLIKO ANONIMOAK

KRISTAVA
NAIZ
TXIKITATIK



Gerraren aitzakian Turkia nola ari den eraldatzen Kurdistango Diyarbakir



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Turkiak Kurdistango Diyarbakir eta beste hiri nagusietan gogortu duen “terrorismoaren kontrako guduak”, helburu politikoaz gain ekonomiko eta urbanistikoa ere baditu: artilleriak suntsitutako edo biztanleen ihesagatik hustutako auzo osoak desegin eta luxuzko eraikin berriak eraiki, agintearekiko otzanak ez diren herritarrak kanporatu, oroimen historikoa itxuraldatu.

Turkiako gobernuak askotan erakutsi du maisu dela etekina ateratzen giza tragediei. Marmara eskualdeko 1999ko lurrikara ikaragarriak agintariei aukera eman zien Istanbulko auzo osoak eraitsi eta zerotik berriz altxatzeko. Berdin ari da 2016an Kurdistango hirietan.

“Zorionez oraingoan Turkian ez du naturak katastroferik eragin. Baina krisi humanitario eta kulturazko bat bai ari da gertatzen. Turkiako armadaren eta PKKren arteko borroketan Diyarbakir hirian, Anatoliako Hego-ekialdean, Sur auzo historikoaren zati handiak hauts bihurtuta geratu dira. Ez bakarrik UNESCOk Gizadiaren Ondareztat jotako lekuak, herritarren bizitokiak ere suntsitu dituzte. Biztanle gehienek ihes egin dute Surreko auzune batzuetatik ehun egun iraun duen setioan”.

Istanbulko Sabanci unibertsitatean hirien transformazioa eta giza bazterketa ikertzen dituen Defne Kadioglu Polatek *The Ecologist* hilabetekarian argitaratutako “*Turkey’s war on Kurdish cities - clearing the way for ‘urban regeneration’?*” artikuluan azaldu du Erdoganen gobernuaren estrategia.

Edozein klasetako krisiei korporazio handiek etekina nola ateratzen dieten Naomi Kleinek azaldu zuen “*The Shock Doctrine*” obra famatuan, tituluaren bigarren zatiak ez baitu alferrik argitzen: “Hondamendi Kapitalismoaren indartzea”. Alegia, inbertsiogile handiek ondo baliatzen dituztela krisi ekonomikoa, naturazko hondamendiak eta gerrak be-

ren agenda neoliberaletan jauzi berriak egiteko.

AEBetako New Orleans aipatzen da kasu arketipiko bezala, Katrina ekaitzak eragindako katastrofearen ostean bihurtu baitu “Ameriketako hiririk neoliberalena”, uholdeen aurretik han zegoen ehun sozio-ekonomikoaren eta milaka herritarren kalterako. New Orleans gaur arras gentrifikatutako hiria da, etxetik joatera behartu zituzten jendee-tako askok ezin izan du itzuli eta Louisianako hiriburua inbertsiogile handien mende geratu da.

Egia esan, Diyarbakirren eraldaketak lehen urratsak 2009an emanak zituen, hiriko udalak –orduan Kurdistan autonomoaren aldekoak– onartu zuenean baimenik gabeko etxeak eraistea, haie-tako biztanleak hiritik 20 kilometro-ra eramanez “aldi baterako”. Auzotar askok, ordea, ez zuten onartzen betiko kale zaharretatik urruntzea.

Orain gerrarekin aurkitu du Istanbulko gobernuak prozesua azkartzeko modua. Diyarbakirgo arkitektoen buru Merthan Aniek salatu du Surren militarrek egindako operazioak gobernuari balio izan diola hedabide nagusien bidez saltzeko Diyarbakir eta Surren eraldaketa urbanistikoari arnas berria emateko, bertako agintariei galdetu ere egin gabe.

HDP alderdiko legebiltzarkide Feleknas Ucak protesta egin du Sur auzune historikoa zaintzeko aitzakiarekin gobernuari delako kontsumo zentro bilakatzen, kafetegi, hotel eta saltoki handi



berriein. Kurdistango Udalerrien Elkartek ohartarazi du “kultur genozidio” planaz.

Kurduak badute hirigintzako manipulazio handion beldur izateko motiborik, 1999an Marmara ingurueta-ko lurrikara beldurgarriaren ondotik, *Kentsel Dönüşüm* programa abiarazi zuen gobernuak Turkia osoan, eta harrez geroztik “etxegintza sektorea esponen-tzialki handitzeaz gain gutxiengo etniko eta erlijiosoaren bizileku ziren auzo osoak goitik behera eraldatu dituzte”, Defne Kadiogluren aburuz.

Hirizidioa Anatolian

Matthieu Gosse geografia irakasle frantsesak Diyarbakirren kasua azaldu du *Orient XXI* hedabide elektroniko berrian: “Diyarbakirgo auzo zaharra bir-rindu eta birmoldatu dute gerraz”.

Kurduen matxinada hasi ostean, 2015eko udazkenean talde armatuak –funtsean Gazteria Abertzale Iraultzaileko (YDG-H) eta Babes Zibileko Taldeetako (YPS) gazte urbanoz osatuak– gortu ziren bai Diyarbakirgo Surren eta bai Cizre, Silopi, Nusaybin edo Yüksekova hirietan. Handik 2016ko martxoa bitartean, Diyarbakirren kasuan, setio egoerak eta gudu armatuek eraldatu dute hiria, auzo zahar historikoaren eta 1980tik aurrera Kurdistango herrietatik iritsitako baserritar txiroen barrio berriaren nahasketaz antolatua.

Borroka gogorrenak martxo erdialdean eten direlarik, 950.000 biztanleko



Sertac Kayar argazkilaria irudian, Diyarbakirreko herritarrek ehun eguneko setioak Sur auzo historikoan egindako kalteei begira eraikin bateko terrazatik. Matthieu Gosse geografoak idatzi duenez, "Surren eraldatze autoritarioaren itxura zehatza oraindik ez da ezagutzen. Hala ere gauza bat bada ezin konponduzkoa: lehengo 'statu quo' egoerara itzultzea ezinezkoa da. (...) Nazioarteko hedabide handien isilpean, Turkia husten ari da Diyarbakirgo auzo historikoa, kenduz bere mamia eta eraitsiz bere hiritartasunaren oinarriak: 'hirizidio' bat [urbicide, jatorrizko frantsesean] ari da gertatzen".

Diyarbakirrek kargugabetuak dauzka udal ordezkari nagusiak, tartean alkatea bera. Armadak ezarri ditu bere banderak eta eslogan nazionalista turkiarrak duela gutxi arte autonomista kurduak kontrolatzen zituzten eraikinetan. Sur auzo zaharra inguratzen dituen harresiaren ate guztiak daude hormigoizko blokez zerratuak, salbu eta bost.

2013ko apirilean Diyarbakir aztertzen aritu zen Gossek; apiril honetan bi eguneko bisitan aurkitutako aldaketak kontatu ditu. Auzo guztiek ez dute berdin sufritu. Melikahmet auzoaren hegoaldean, Lalebey, Alipaşa, Ziya Gökalp edo Abdaldede karrika inguruetan etxe asko daude metrailatuak, hormetako graffietiek erakusten dute PKKren aldekoak asko zirela hemen: "Lehen kale estuotan bizi soziala handia zen, haurrek

sekulako giroa jartzen zuten. Harresien inguruko belardi handiak, lehen jendez gainezka egoten zirenak, oraingoan hutsik zeuden. Ageri da biztanle gehienek ihes egin dutela, eta borrokak baretu ostean ez direla itzuli".

Iskenderpaşa edo Melikahmet auzoetan, aldiz, apenas aurkitu du geografoak bala arrastorik eraikinetan, ikusten diren grafiti gehienak turkieraz daude eta gaur egun ere polizia turkiarrek kontrol arinagoa dagite horietan. Jende askoz gehiago geratu da hemen.

Egoera okerrean Sur ekialdean aurkitu du: Fatihpaşa, Hasırlı, Savaş, Cemal Yılmaz.... 15.000 biztanleak behartu dituzte joatera. Auzoan sartzea debekatu dago. PKKren aldeko (IDG-H, YPS) milizietako gazteak hemen gotortu ziren, ez da jakin zenbat, ehunka batzuk, baina -dio Gossek- Diyarbakirgo jendeak ez

ziren jarraitu. Gudari guztiak hil edo preso hartu zituzten.

Turkia auzo honen parte osoak ari da eraisten, lekukorik gabe, gerran hasitako txikizioa osatzeko, bulldozerrez eraisten etxebizitza bloke osoak, eskonbroz kargatutako kamioiak eten barik irteten dira handik.

Martxo honetan bertan Ankarako gobernuak erabaki du desjabetzea hego Surreko 6.292 etxebizitza, Udalaren eraikinak eta eliza kristauenak. Ahmet Davutoglu lehen ministroak esana zuen: "Sur berreraikiko dugu Toledo bezala". Matthieu Gossek idatzi duenez: "Davutogluren berreraikitze proiektuak AKPren pentsamoldearen arabera dudu: gentrifikazio autoritarioa, txiroak urruntzea, iraganaren irakurketa ideologikoa, kartoizkoak diruditen dekoratuen gisako hiri paisaiak". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Isaac Xubín, idazlea

«Euskararik gabe, ez dakit non nintzatekeen oraintxe»

Galegoak duen idazle handienaren poema bat euskaratu zuen estreina: Méndez Ferrínena. Azkena, euskarak duen idazle handienetako bat itzuli du galegora: Joseba Sarrionandia. Bi hari horien artean dilindan, lotailu, hirugarren poeta: Isaac Xubín.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Euskara ikastera etorri zinen Bilbora. Gero, Gasteizen ere bizi izan zinen.

Filologia Galegoa ikasketak egin nituen lehenengo, eta bukatzekotan nintzela, prestakuntza osatze aldera, nire buruak besterik egin behar nuela agindu zidan. Halaxe etorri zitzaidan gogoa, eta halaxe egin nuen: Euskal Herrira etorri nintzen duela hamar urte baino gehiago.

Jendea Ingeles Filologia ikasten amorratua da aspaldi.

Bai, hala da, baina ingelesaren espazioa beteta dago. Euskararena, aldiz, ez. Horregatik etorri nintzen. Lau urte egin nituen Bilbon, bi Gasteizen. Euskaraz ikastera etorri nintzen, ez beste ezertara, eta hortaz, lehenengo gauza, euskaltégian izena ematea izan zen, zerbitzari lanean edo pizza banatzaile hastearekin batera. Errazago zitzaidan Bilbora etortzea, errazago nuelako bertan lana inguratzeara. Jakina da herri txiki euskaldun batera joz gero euskaraz gehiago, eta hobeto, ikasiko nukeela, baina nekeago izango nukeen lana izatea.

Erraz jarri zinen Bilbora nahiz Gasteizera?

Bai, ezinik ez nuen izan. Euskara ikastera etorri nintzen, eta laster ari nintzen erabiltzen, apurtxo bat, behintzat. Gainera, hor zen telebista, literatura, prentsa... eta, bestalde, badira zenbait

leku, non euskaraz egiten baitute. Aski duzu, beraz, horietara jotzea. Tenisean jokatu nahi duenak ere zer du, bada? Tenisean jokatzen den lekura joan behar du, ez gimnasia erritmikoa egiten den kantxara sartu. Bertara joan, giroan sartu, egokitu, jendea ezagutu... horixe egin beharko du. Euskara ikasteari dagokionez, nire kasuan, Bilbon bizitzea ez nuen zailtasun apartekoa izan euskaraz ikasteko. Are gutxiago hasiberria zarenean, elkarriazketak sakonik euskaraz burutzerik ez daukazunean. Aldiz, tabernan euskaraz eskatzeko gai zara. Bada, hasiera duzu. Ondoren, egunkaria etorriko da, eta telebista, eta horrela, piramidea jasoko duzu.

Gasteizen filologia fakultatean izan zinen.

Filologia erromaniko bat egiten ari nintzen Galizian, eta filologia ez erromanikoa zertan zen jakin nahi nuen. Eta zori oneko nintzen, Euskal Herritik hurre bainengoen Vigon. Filologia erromanikoan, latina duzu nagusi, eta gutxi dira latinaren arloan erantzunik ez duten galderak. Euskal filologiari dagokionez, berriz, guztiz kontrakoa da egoera. Euskara hizkuntza isolatua da, ez du ahai-detasunik, eta hizkuntzaren historiaren goitibeheitiak zein izan diren erakutsiko duten testu zahar askorik ere ez du. Ho-

rrexek eraman ninduen Bilbotik Gasteiza, Euskal Filologia han baitago. Zenbait ikasgaitan izena eman nuen, baina ez tituluaren jabe egiteko asmotan, ezpada jakintza helburu, euskararen historiari buruz maila akademikoan egosten direnak jakiteko gogoz.

Ez zenuen euskararekin alde zurretiko loturarik batere.

Ez, euskararekin ez, baina Bilborekin bai, aitaren aldeko aitaita-amamak etorri izan baitziren bertan. Eta asko izan ziren hemen, aitaitarenean hamalau neba-arreba izan zirelako, eta amamarenean hamarren bat. Honenbestez, aitak, gaur egun, kasik 50 lehengusu-lehengusina txiki ditu. Aitak 6 urte zituela, aitaita-amamak Galiziara itzuli ziren, baina, hala ere, familiaren mitologiaren parte da Bilbo harrezkero. Etxean berriketan, beti ateratzen zen Bilbo, bilbotarren bat zelako tartean, edo bertan bizi zen senideren bat aitzakia. Bilboko kapapean ginen, nolabait.

Baina ez zinen horregatik etorri.

Ez, euskarak ekarri ninduen, baina Galizian nengoela ere, beti han Bilbo. Bertara etorrita, zenbait zirkulu itxi ahal izan nituen; familiari lotutakoak, batik bat. Inoiz kontatu dizut sagutxinhoren historia?



Isaac Xubín

1978, Coruña

Idazle eta itzultzaile da. Idatziak ditu poemak eta narrazio laburrak, eta zenbait sari jasoak da. Filologia Galegoa ikasten ari zela heldu zen gurerak euskaraz ikastera, eta loturari eusten dio harrezkero. *Alén da fronteira, Sete poetas vascos* emana du galegoz, eta itzuliak ditu Harkaitz Cano, Itxaro Borda, Kirmen Uribe... laz, Etxepare saria jaso zuen Joseba Sarrionandiaren *Tempo de exilio* itzulpenarekin. Gaur egun Irlandako Cork-en bizi da errugbi jokalaria zaildua ere baden galego-euskaldun hau.

Sagutxinho?

Bai. Amamak sagutxinho esaten zidan beti. Uste nuen galegoaren hitza zela. Horrek ez du onik esaten nire baitako filologoaren alde. Kar, kar... Lehenago konturatu behar nuen ez zela galegoa, amamak beste inork ez baitzuen hitz hura erabiltzen. Baina horrela zen: sagutxinho, beste izenik ez zidan ematen, eta are, gaur egunean ere sagutxinho esaten dit. Orain dator urrezko giltza: euskaltegiko lehen egunean, Gardoniz kalean, irakasleak, beti-betiko aurkezpenak eta gero –“nola duzu izena?”, “zergatik ikasi nahi duzu euskaraz?”–, orrialde batzuk eman zizkigun, non irudi batzuk beraien euskarazko izenekin batera ageri baitziren. Haietako hitz batek arreta eman zidan, arreta, ezagutzen nuelako. Ezagutzen nuen hitz bakarra: sagutxo! Une horretan, haurtzaro beteagiro zitzaidan begien aurrean.

Sagutxo, sagutxinho. Bikaina zuen amama.

Bai. Kar, kar... Dena dela, teoria bat dut, zeinaren arabera amama ez baitzen gogo onez itzuli Galiziara. Beharbada, Galiziara joanik ere, Bilbon irauteko modu bakarra zuen: lobarri hemengo amama batek egingo lukeen moduan deitzea, *-inho* erantsita. Ez pentsa, hogeitaka urterekin deskubritu nizun hori, euskaltegiko estreinako egunean.

Ez zaitut irudikatzen moto gainean tur-tur-tur, pizza-banatzaille Gasteizen.

Bada, horrexetan ibili nintzen. Kar, kar... Gainera, arratsalde nahiz iluntzeko lana zen, eta hortaz, egunez bestelakoak egin nitzakeen. Garai hartan, bestalde, nahiko erraza zen –gida-baimena eta eskarmentua izanez gero–, lana inguratzea. Nik biak nituen, Pontevedran gisako lana egina bainintzen. Berehala hartu ninduten, jende askok ez zuen horretan lan egin nahi izaten; neguko hotzean, batik bat. Galiziara oporretan joaten nintzen aldiro, utzi egiten nuen lana. Itzuleran, hantxe nuen zain.

Poeta pizza-banatzaille.

Batere poetikoa ez, ezta? Kar, kar...

Galego irakurle jardun zenuen Corkeko Unibertsitatean, Irlandan.

Euskararik gabe, ez dakit non nintzatekeen oraintxe. Seguruenera, ez nintzen hizkuntza arloan ariko, ez filologian eta

Enpatia

“Euskaltegian filologiak ekarri ninduela euskarara esaten nuen, eta dudarik gabe, horrek nire alde jokatzeko zuen, *“ex profeso* etorri da morroi hau euskara ikastera”. Izan ere, euskaltegian bazen jende multzo bat laneko premiak eraginda ikasten ari zena, eta haien diskurtsoa ez zen, bistan denez, nirea bezain enpatikoa irakasleentzat. Ni, Galiziatik Bilbora euskara ikastera etorria!”.

Erraztasuna

“Erraztasuna besterik ez nuen izan, hala Administrazioaren nola baliabideen aldetik. Era guztietako euskal gramatikak dituzu gaztelaniaz, badituzu bi orduko ikastaroak, bostekoak, barnetegiak... Hemen bizi bazinen, Administrazioak matrikularen zati ondradu bat ordaintzen zizun –garai hartan, behintzat–, eta badiotsut, erraztasuna besterik ez zen”.

Knörr, Gorrotxategi

“Euskal Filologian, Henrike Knörren eskoletara joan nintzen, testu zaharrei buruz ematen zituen azalpenak aditzen; oso saio atseginak ziren. Interesgarriena, hala ere, hizkuntza palohispanikoen gainean Joakin Gorrotxategik gidatzen zuen ikasgaia zitzaidan, hau da, zein aztarna ditugun euskararen historiaren bidean, eta zein ondorio atera ditzakegun lekukotasun apur horietatik. Alderdi hau batere ez da ikasten filologia erromaniko batean: lusitanoa, iberoa... Mundu berria ireki zitzaidan”.

ez idazten ere; idazteari utzia... Euskal Herrira etortzea erabaki nuen egunean euskaraz ikastera –amak esaten dit–, egun hartan santua jaitzi eta ukitu zintuen! Eta ez da gezurra, lagun asko baititut nik baino espediente akademiko askoz hobea dutenak, hizkuntzari lotutako gaietan lanean ari ez direnak. Hori ere ikusi bainuen nik: hamaika ikaskide, langabetuen ilaran, lan bat harrapatzeke ezinean. Orduantxe esan nion neure buruari: “Besterik behar duk, hortik ez zagok-eta irtenbiderik!”. Eta, berez, Filologia Galegoa amaitu baino lehen heldu nintzen Euskal Herrira. Eta beti betikoa esaten zidaten: “Zertan ez duzu lehenago amaitzen, gutxi geratzen zaizu eta”.

Inori kasurik ez zuk.

Ez. Eginak nituen egin behar nituen urteak unibertsitatean, ez zidan askoz gehiago emango. Nahi nuen orduko, gaitutako behar nituen azken ikasgaiak gaitutu eta nahikoa nuen. Baina hura denbora alferrik galtzea zen, bitartean bestelako aberasgarriagorik egin bainezakeen. Euskaraz ikastea, kasu. Horrela egin nuen. Geroago lortu nuen titulua. Nire lagun asko, esan dut, bestelako lanetan hasi ziren. Euskararen bidez osatutako curriculumak lagundu zidan Cork-eko unibertsitatean galego irakurle izaten: galego-euskara hiztegia, Vigoko unibertsitatean emandako euskarazko eskolak, itzulpenak... Curriculum hori gabe, nekez nintzatekeen Irlandan.

Galizia, Euskal Herria, Irlanda... Zarautzen izan berri zaitugu Literaturia jaialdian.

Bai. Iaz, Salvaterra do Minhoko poesia jaialdian Sarrionandiaren *Tempo de exilio* aurkeztu nuen, iazko Etxepare saria, eta hemengo zenbait poeta gertatu ziren han. Zarauzko jaialdiaren berri eman zidaten, eta etortzeko gonbita egin zidaten. Gogo onez etorri naiz. Bestalde, Zarauzkoan, Ruper Ordorika ezagutu nuen, eta sariak itzultzailea eta argitaletxea, biak saritzen baititu, eta gainera, liburu sarituaren promozioa ere sustatzen baitu, jira txiki bat egingo dugu udazkenean Ruperrek eta biok Galizian barna. Hemen egitea ere ez legoke gaizki.

Bi norabideko harremana duzu.

Bai, handik honakoa bezain hemendik harakoa. Dena dela, oraintxe, bateko krisia eta besteko hizkuntzaren egoera, Ga-



"Nire aitaita-amamek galegoz besterik ez zuten hitz egiten, baina ez dakit bizian inoiz filmik ikusi zuten Galizian egina, galegoz. Edo libururik irakurri ote zuten inoiz galegoz".

lizian itzulpenetara emanak daude bertako argitaletxeak. Obra oso onak, oso ondo itzuliak, eta argitalpen bikainak. Nahiz eta bertakoek saltzen segitzen duten, Méndez Ferrín, Manuel Rivas, Suso de Toro...

Zer diostazu, hizkuntzaren egoera? Galegoak ere lanak? Uste nuen guztiok hitz egiten zenutela galegoz.

Kontua ez da non zauden, nora zoazen baizik. Hiztun kopuruak ez du askorik balio: kopurua inkesta batean edo atlas batean jartzeko baino. Egiatan, txosten soziologikoa osatzen denean, hizkuntzaren bektorea norantz doan da inportanteena. Eta galegoaren kasuan, hiztunen %70 adineko jendea baldin bada, 65 urtetik gorakoak, horrek esan nahi du bektorea beherantz ari dela. Euskararen kasuan, adibidez, gutxik hitz egiten dutela esaten da, eta baliteke, baina bektorea gorantz ari da. Are gehiago, euskara hiztunen adin piramidea proportzionatuagoa da, eta gazteek zaharrek baino konpetentzia linguistikoa handiagoa dute. Hortaz? Nire aitaita-a-

mamek galegoz besterik ez zuten hitz egiten, baina ez dakit bizian inoiz filmik ikusi zuten Galizian egina, galegoz. Edo libururik irakurri ote zuten inoiz galegoz. Tira, hasteko, euskarazko bi film erosi berri ditut: *Loreak* eta *Amama*.

Ez duzu aukera txarra.

Adiskide onen gomendio onak, kar, kar... Galizian oraintxe ari gara bide horretan hasten. Eta Sarrionandia itzultzeari dago-kionez ere, nik ez beste batek izan beharko zukeen itzultzailea. Alegia, nik baino lehen, besteren batek ikusi beharko zukeen euskararen bidea Galizian. Ez gaude urruti, nahiz eta erraza ere ez den handik hona eta hemendik hara joatea: zenbat autobus eta zenbat tren ibili ditudan nik Bilbotik Vigora eta Vigotik Bilbora.

Isaac Xubín zarena, Isaac Fernández Fernández zaitugu egiatan.

Ama dut Xubínen jaioa, Coruña bestaldean, Oleirosen. Galiziatik kanpora eman nuen haurtzarora, eta itzultzen ginenero, Coruñan edo Xubínen ginen, aitaita-amamen etxean, edo osaba-ize-



jan baserritik

20491 Leaburu · ☎ 943 670 724
www.mahalanaturala.com



Dorleta auzoa, z/g.
20540 ESKORATZA

Tel.: 943 71 41 57

<http://mukom.mondragon.edu/lanki>



benean. Nire erreferentzia identitario bakarra Xubín zen, Coruña. 15-16 urte nituenean, aitaita-amamak hil eta osaba-izebek Xubíngo etxea saldu zuten. Erreferentzia hura galtzearekin batera, garaisuan, poesia sari bat irabazi nuen, eta Xubín erabaki nuen.

Zure identitatearen zati duzu Xubín.

Bai. Aita Bilbon jaio zen, baina Coruñara eraman zuten, txikitan. Bazuen trauma txiki hori, alegia, oroitzapenik ez duen

Azken hitza: Méndez Ferrín

"Méndez Ferrínen omenezko poema bat itzuli nuen euskarara, Alvaro Cunqueioren beste bat... Euskara lantzeko ariketa modura egin nuen. Orain esango balidate, ezetz esango nukeen, benetako itzultzaileei agintzeko esango niekeen".

leku batekoa izatea. Ni jaiotzekotan nengoela, gurasoak Burgos iparraldeko Espinosa de los Monteros herrian bizi ziren. Aitak ez zuen nahi berari gertatu zitzaiona gertatzea niri, eta lanean opor egunak eskatu eta Galiziara eraman ninduten: ni Coruñan jaiotzea ez zen halabeharra izan, guztiz aukera kontzientea baizik. Etxean bigarrena jaio zenean, berdin, aitak oporrak eskatu eta Coruñara. Halabeharrik gutxi gure jaiotzetan. Badakigu nongoak garen. ■

 **Joxem Zumalabe** fundazioa

Ametzagaina Kalea 19
20012 Donostia

Tel.: (+34) 686 72 88 43
(+34) 652 731 304

harremanak@joxemizumalabe.eus

 **EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA**

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 591 200
www.kontseilua.eus

euskaraz bizi nahi dut

 **reas euskadi**
ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareak
red de economía alternativa y solidaria

Venezuela plaza 1 - 2 ezk.
48001 BILBO

Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

Herri txiki eta normalizatu honetan



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Herri txiki eta normalizatu honetan lege proposamen bat ez dute tramitera onartu euskara hutsean zegoelako.

Herri txiki eta normalizatu honetan Nafarroako ume askok milaka kilometro egin behar dituzte bertako hizkuntzan ikasi ahal izateko.

Herri txiki eta normalizatu honetan euskal telebista publikoari debekua ezarri zaio bere hiztun eremuaren zati batean emititzeko.

Herri txiki eta normalizatu honetan tortura ohiko praktika izan da eta hori salatzen duena atxilotzen dute.

Herri txiki eta normalizatu honetan Europar Batasuneko polizia ratio altuena dugu, mila biztanle bakoitzeko sei agente. Horietatik %35 ez da bertako polizia.

Herri txiki eta normalizatu honetan kazetariei euren lana egiteagatik isunak jartzen dizkiete.

Herri txiki eta normalizatu honetan emakumeak bigarren mailako herritarrak gara, ez dugu tokirik espazio publikoan, lan berdinen truke gutxiago ordaintzen digute, etengabeko gutxiespenak jasaten ditugu eta jotzen, erasotzen eta hiltzen gaituzte.

Herri txiki eta normalizatu honetan preso dauden senide eta lagunak ikusteko munduari 8,8 bira ematen dizkiogu astero, errepideetan bizitzak arriskuan jartzeaz gain, 109.221,70 euroko gastua dakar horrek.

Herri txiki eta normalizatu honetan ikusi dugu nola gure bandera Estatu Islamikoaren banderaren parean jarri duten, Eurovisionen, hura erakusteko debekuarekin batera.

Herri txiki eta normalizatu honetan jendea sare sozialetan botatako iritzien harira atxilotzen dute.

Herri txiki eta normalizatu honetan hezkuntza-erreforma inposatzen digute, hezkuntza-komunitatea, gizartea

eta politikagintzaren gehiengoa kontra agertu arren.

Herri txiki eta normalizatu honetan diskurtso xenofoboak barra-barra entzuten ditugu politikarien ahotan, bizitza duinaren bila lanera datozenak diru-laguntza publikoetatik eta alferkerian bizitzera datozela aditzera ematen duten aldiro.

Herri txiki eta normalizatu honetan herritarrak euren ideia politikoengatik epaitzen dituzte eta, sostenguak sostengu, zenbait politikarik ezin dute hautagai izan epaitegi batek eskubide hori ukatzen dielako.

Herri txiki eta normalizatu honetan langileon eskubideak dekretu bidez ezeztatzen dituzte; langileok negoziazio kolektiboaren babesik gabe uzten gaituzte, zabor-kontratuak ugaritzen dira eta multinazionalak irabaziak handitze-ko kaleratze masiboak egiten dituzte.

Herri txiki eta normalizatu honetan "normalizazio" horrek norma jarraitzearen adiera bakarrik izan dezake, asimilazio politikorako mekanismoek dakarten normalizazioa: batetik, akulturazio bidez eta idiosinkrasia galduta estatuaren arauak onartzea; eta, bestetik, kapitalismoa eta patriarkatua naturala, berezkoa, aldaezina, norma dela sinestaraztea. Normaltasun parametroetan ulertuta, ordea, ez da abilegia izan behar konturatzeko Euskal Herriko egoera normalizazio politikotik urrun dagoela. Ez dago normalizazio politikorik norbanakoen eta herrien askatasun indibidual eta kolektiboak zapalduak daudelako, pertsona eta herri gisa gure eskubideak sistematikoki ukatzen dizkigutelako. Ez dago normalizazio politikorik demokratikoa ez den estatu baten pean. Hala izanik ere, egun bizi dugun egoera normalizazio politikoa dela esaten digute, eta ustezko normalizazio horren barruan normaltzen da bizi dugun zapalkuntza. ■

Herri txiki eta normalizatu honetan "normalizazio" horrek norma jarraitzearen adiera bakarrik izan dezake, asimilazio politikorako mekanismoek dakarten normalizazioa: batetik, akulturazio bidez eta idiosinkrasia galduta estatuaren arauak onartzea; eta, bestetik, kapitalismoa eta patriarkatua naturala, berezkoa, aldaezina, norma dela sinestaraztea

Zer prezio du zure minbiziak?

Zuk ezetz pentsatuko duzu igual, osasunak ez duela preziorik eta itsuskeria dela dirutan neurtzea, baina gure gizarte honek zenbateko bat jartzen dio gauza orori: zoaz aseguru-etxe batera, eta ikusiko duzu zenbat balio duen ezker eskuko hatz txikerrak edo zenbat sudur puntak, istripu batean galduz gero, adibidez. Urtetan amiantoarekin lan egin eta horren ondorioz hildakoen senideek ere ikasi dute zenbatean kotizatzen den minbizi bat, epaitegiek erabakitako kalte-ordainetan (nahiz eta garai hartan ez genekien sustantzia hura kantzerigenoa zela).

Gipuzkoako Aldundiak Zubietan zaborrak erretzeko labe erraldoi bat egin nahi duela-eta, haserre dabil herritar asko. Antzeko erraustegiak egin dituzten lekuetan kaltetuen elkarteak daude, abortuak, malformazioekin jaiotzen diren umeak eta minbizi-kasuak ugaritu egin direla diotenak. Histeriko kuadrilla bat ez dela baieztatzeko, mediku mordoxka bat ere plazaratu da, gauza bera esanez. Diputazioak, berriz, lasai egotea, ez dagoela arriskurik, kontrolpean dagoela dena. (Nik berez ez dakit ezer gai hauetaz, baina halakoak entzuten ditudanetan Spielbergen *Jaws* filmaz oroitzen naiz beti, nola lehen hildakoak



Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA
@xme64

Ahaldun jaun-andre txit gorenak Biodonostia enpresa publikoarekin egin dute akordio bat, erraustegiak izango dituen ondorioak neurtzeko. Zinikoa ez balitz, barregarria litzateke

agertzean alkateak lasaitu nahi dituen herritar eta turistak, ezer arrarorik ez dagoela esanez).

Kezkatuak baretzeko edabe magikoa balitz bezala, ahaldun jaun-andre txit gorenak Biodonostia enpresa publikoarekin egin dute akordio bat,

erraustegiak izango dituen ondorioak neurtzeko. Zinikoa ez balitz, barregarria litzateke. Eman dezagun hurbil bizi den populazioan (bost kilometroko erradioan 50.000 inguru bizi da; 25 km-ra zabalduz gero, ia 500.000), %1 handitzen dela abortu-kopurua, edo malformazioa, edo minbiziena. Huskeria bat da %1 hori, ezta? Gainera, nola jakin erraustegiaren ondorio zuzena dela eta ez dela beste faktore batzuek eragina edo kasualitatearen emaitza? Zalantzakotzat jo litekeen kalte horren aurrean, bertan behera utziko al dute hainbeste milioi kostatu den azpiegitura? Eta zer egin hortik aurrerako zaborrekin? Erraustegiaren eraikitzaile-kudeatzaleei ere berdin-berdin ordaintzen jarraitu beharko genuke, gainera.

Beraz, zuri edo zure etxekoren bati tokatzen baldin bazaizu %1 horretan egotea, pentsa zorte txarraren loteria egokitu zaizula, progresoarean aldarean egin beharreko sakrifizioa, errepideetan suertatzen diren istripuen antzera. Bestela, tentazioa izan zenezake eskrupulu gutxiko negoziante (garesti) eta mendeku politikoz ari diren agintari (merke) batzuei egozteko desgrazia horren errua. Gero epaitegien zain egon beharko dugu, jakiteko zenbatean baloratzen duten zure minbizia. ■

Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia:

JARRI PUBLIZITATEA HEMEN

943 371545 • publiz@argia.eus • www.argia.eus/tarifak



Euskararen herria



Mikel Irizar

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA
BERDINTASUNEN
ZUZENDARIA
@mirizarberdin

Nafarroan aldaketa politikoa gobernuan nabarmendu da, baina maila bertsuan aldatu dira udalak eta kontzejtuak; eta hauek biltzen dituen federazioan udal euskaltzaleak dira nagusi. Ez daukat ahazteko irratian Tuterako alkatea –Ezkerrakoa– euskaraz entzuteak eragin zidan emozioa.

Euskal Autonomia Erkidegoan EUDEL-en inguruan akordio politiko zabalak egon da, baita udalen legea adosteko ere. Kasu honetan, azpimarratzekoa da euskararen aldeko konpromisoa indartu izana, bai legean eta bai elkargoan.

Eta Iparraldean udalen gehiengo zabalak dagoeneko onartu du haien elkargoa, hizkuntza politikan ere eskumenak izango dituenak. Okerrik ezean, urte berriarekin abiatuko da eta aurrekontu polita aurreikusten zaio.

Gauzak horrela, uste dut eskura daukagula euskararen herria antolatzeak aukera udalgintzatik. Udal elkargoen arteko lankidetzak normala da, eta lege orokorrek erraz onartzen dute ondasun komun immaterialak –kultura eta hizkuntza– kudeatzeko. Alde horretatik, Europako legedian aukera balegoke. Eta gurean borondatea? Zertan da euskalgintza?

Euskararen inguruan gogoeta ugari dabil azken urteotan. Biziberritze prozesua bidegurutze batera iritsi dela eta, euskaltzaleon buruak dantzari jarri dira. Esanguratsua izan da *Berrikusi eta berrikusi* dokumentuak herriz herri egin duen ibilbidea, edota Patxi Saezen *Elefantea ikusi*

proposamenak izan zuen hedapena, sarean eta bestela.

Uste dut orain arteko emaitzarik biribilena dela HPSren Euskararen Aholku Batzordeak aho batez eta ilusioz onartu berri duen *Eta hemen-dik aurrera zer?* dokumentua. Esango nuke hor finkatu direla etorkizuneko hizkuntza politikaren kontzeptuak eta ikuspegia, hor dagoela egitekoaren enborra.

Beste bi ekimen aipagarri: lehena, Eusko Ikaskuntzak gidatzen du eta bi urteko ortzimu-garekin ari da lanean. Hastapenetan badago ere, anbizioa eta berritasuna dario, eta jarraitu beharrekoa da. Bigarrena da Gipuzkoako Aldundian euskararen gizarte erakundeekin hasi dugun parte hartze prozesua. “Zer egin behar dugu diferente eraginkorrako izateko?”, galdetu diogu geure buruari eta ahalegin berezia egin dugu metodologian ere berritzaile izateko. Ilusioa sumatu dut prozesuan, eragileon jarduerak birrasmateko prestutasuna; eta deigarria egin zait oraintsu arte nagusi ziren ikuspegi zenbaiten kotizazio baxua.

Labur: aukera badago euskararen herria artikulatzeko udal elkargoak oinarri, eta borondatea sendotzen ari da euskalgintzan bide eta molde berriei ekiteko.

Eta euskararen herria indartuta, biziberritze prozesuan jauzi egingo genuke eta hiztun komunitatea eraginkorrakoa litzateke erabaki orokorak hartzeko orduan. ■

Euskaraz mintza hadi, herritar



Joanes Etxebarria

KAZETARIA

Xiberoako Herri Elkargoak euskara sustatzeko kanpaina abiatu berri du. Sare sozialetan arrakasta ukan duela dirudi, hein txikian baina arrakasta zerbait halere, seguruenik Xiberoako agintariak ez ditugulako Gipuzkoa edo Bizkaikoak bezain begi zorrotzez begiratzen. Zerbait egin dute, gutxienez, eta txalo.

Azkenaldian hala ez bada ere, berriki arte Herri Elkargoaren bilkuretan egoten nintzen, noizbehinka, kazetari lanak egiten. Sekula ez dut hitz bakarria entzun euskaraz, hautetsien gehiengoak edo parte handi bat euskalduna delarik. Hori beharbada aldatu da orduraz geroztik,

baina ziur naiz hizkuntza nagusia bestea dela oraino ere.

Hurbiletik segitu ez badut ere, ziurtatu dezaket hautetsi bat edo biren nahiak duela kanpaina abiarazi, besteak –EAJ bezala parlamentuan– abstenitu beharbada ez, baina konbikziorik gabe gelditu direla. Ez zaie euskarazko bilkurak egitea galdetu, beraz bego, ez dira oldartu. Xiberoak ere euskara indartzeko neurriak behar ditu, eta zerbait egitea ez da gaizki, baina erabaki politikoak hartzea hobea litzateke. Ez beza nehok erran ez dela posible, Uztartitzek erakutsi baitzigu baitetz. ■





GIPUZKOA ZUTIK

ARNASA HARTU NAHI DUTENEN PLAZA

Gipuzkoako erraustegiaren aurkako eztabaida publikoak koska bat gora egin du maiatzaren 29tik ekainaren 5era bitarteko astean. Zubietako plantaren aurkako giza kate jendetsuari ekimen berri batek eman dio jarraipena: Gipuzkoa Zutik sortu da, Diputazioaren parean kanpaldi iraunkorra antolatu duen mugimendua. Gipuzkoarrei eragiten dieten problema ugari buruz hitz egiteko elkargune bihurtu da hasieratik. Hau da lehenbiziko astean arnastu duguna.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Joan dira Donostiako udaltzainak maiatzaren 29ko arratsaldean Gipuzkoa Plazara eta espero ez zuten zerbait aurkitu dute: kanpaldi bat Foru Aldundiaren parean dagoen parkean, ehunka lagun hara eta hona, gauzak ekartzen eta lekua gauerako prestatzen. Eta denen artean mutil bat, Guardia Zibilaren txapel okerra buruan, *Dragoi Bola* telesailean Gokuk janzten zuenaren antzeko kirol-jertsea soinean eta ur pistola eskuan. Agenteengana hurbildu da eta zera esan die:

- Kaixo, problemarik?
- Bai, baimenik eskatu al duzue?
- Ez.
- Eta nork antolatzen du hau?
- Guztiok.
- Eta noiz arte egongo zarete?
- Botatzen gaituzten arte.
- Oso ongi.
- Egun ona izan dezazula.

Zubietako erraustegiaren kontrako giza kate jendetsua bukatu eta gutxira bildu dira plazan, sare sozialen bidez



egindako deialdiari erantzunez. Gipuzkoa Zutik ekimena hasi besterik ez da egin eta dagoeneko lehenbiziko gaia mahai gainean jarri du: herritarrek ezin al dute plaza batean ezer antolatu aurrez baimenik eskatu gabe?

Deialdiak bizipoza eta lotarako zakua ekartzeko esaten zuen, 16:00etan biltzea proposatzearekin batera. Jendea hainbat zirkulutan bilduta dago 16:30ean iritsi garenean; horietako batera hurbildu eta berehala utzi digute esertzeko lekua. Banaka hitza hartzen ari dira, pertsona bakoitzak bere burua aurkeztu eta kanpaldiaren bidez zertan eragiteko gogoa daukan esplikatzeko du. Hasieratik dago argi hau ez dela erraus-tegiaren aurkako zerbait bakarrik izango, Zubietako planta sinbolo bat dela, politika egiteko modu baten metafora, eta beste hainbat problemarekin lotzen dutela bildutakoak.

Txanda guztiak bukatu dira. Isilunea. Segundo batzuk pasa dira inork hitz egin gabe, borobilean daudenek elkarri

Joan den asteazken goizean udaltzainek Gipuzkoa Plaza hustu ondoren, Boulevardera joan zen mugimendua. Ez denbora askorako: arratsaldean plazara itzuliko zirela erabaki zuten. Ertzaintza eragozten saiatu zen arren, asanblada ibiltariak modu baketsuan lortu zuen Foru Aldundiaren parean dagoen parkera itzultzea.

irribarre urduriz begiratzeko adina; ez dutela elkar ezagutzen eta elkarrekin gauzak egiteko ohiturarik ez daukate-lajabetzeko adina; eta konturatze-ko, jarraian inork ez duela aurrez pentsa-tutako plan bat aurkeztuko. Hau da da-goena: zerbait egiteko gogoa daukaten pertsona batzuk zirkuluan bilduta. Eta orain zer? “Bueno, nik uste egin dezake-gula...”, hasi da bat. Eta pixkanaka beste batzuk ere animatu dira. Oraindik ez da-kite, baina Gipuzkoa Zutiken parte dira jada, ondorengo egunetan modu batera edo bestera ekimenean zerbait egingo duten pertsona guztiak bezala.

Esperimentu politiko baten multiploak

Hemendik aurrera denbora dilatatzeko hasten da eta gauza asko batera gertatu-ko dira. Lerro hauek ekainaren 5ean ari dira idazten, maiatzaren 29tik astebete-ra. Bitarte horretan, gizarte mugimendu arrunt batek zazpi egunean sor deza-keena baino askoz informazio gehiago produzitu du Gipuzkoa Plazako kanpal-diak. Ekintza zehatzak dira, gauzatuko diren eta bidean geratuko diren propo-samenak; burutazioak eta harremanak; elkarrizketa asko, sortzen joango diren konplizitate berriak.

“Hauek dira benetako Gipuzkoako Ba-tzar Nagusiak”, dio norbaitek plazan. Egunero 19:00etako asanblada da mu-gimenduaren puntu zentrala, baina ar-datx horrek garrantzia daukan arren, lantalde espezifikoek autonomia handia dute; eta pertsona bakoitzaren konpro-miso txikiei esker abiadura biderkatzen joango da egunek aurrera egin ahala. Esperimentu politiko honek multiploak



sortzeko atea zabalik dauzka, edonork jar dezake martxan kezkatzen duen zer-baiten inguruan lanean hasteko dinamika.

Horrek hiriko beste leku batzuetara ere eraman du mugimendua. Lehenbiziko asteko agerpen esanguratsuenetako bat ostiralean izan zen, “Turismoak arduratzen gaitu” lemapean. Kontxako pasealekuan turistaz mozorrotuta, erraustegiak hirira bisitan datozenei egingo dien kaltea esplikatzeko aritu ziren atzeritarrei. “Eskerrak haiek aste-beterako datozela! Gu hemen bizi gara”, dio sare sozialetan ekintza horretara deitzeko zabaldutako mezuak. Umorez salatu dute hiria turistak erakartzeko antolatzen dutela agintariak, bertakoen beharrak bigarren planoan utziz.

Baina hau ez da Donostian bakarrik gertatzen: hainbat herritan kartelak agertu dira ekimenari atxikimendua adieraziz eta larunbatean, Boulevarda manifestazio koloretsu batekin betetzen ari den bitartean, sei lagunek tal-

» Isiltasun momentu bat lehenbiziko egunean bilduta dauden zirkuluan: ez dago aurretik ezarritako planik. Hutsetik antolatzen hasi da Gipuzkoa Zutik

» Egunero 19:00etako asanblada da ardatza. Lan talde txikiek autonomia handia dute ordea, eta horri esker azkar pasa dira ekintzak antolatzera

de bat Irungo Bioterra azoka ekologikoan informazioa banatzen ari da buzo zuriak jantzita eta mugimenduaren ikur bihurtzen ari diren kutsaduraren aurkako maskarekin. Esku-orriek diotenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak horrelako feriak babestean garapen jasagarriaz hitz egiten du, baina “horri kontrajartzen zaion errauskailua eraiki nahi du”.

Plaza abiapuntu, ez helmuga

Ekainak 1, asteazkena: udaltzainak azaldu dira Gipuzkoa Plazara. Bertan daudenei kanpaldia desegiteko esan diete eta, zer egin erabakitzeko bildu direnerako, agenteak eurak hasi dira kanpin dendak eta jendearen objektu pertsonalak eramaten. Deia berehala zabaldu da sareetan, jende ugari doa laguntzera, motxilak, mahaiak, banderak, otorduetarako tresneria eta salba daitekeen guztia hartu eta Elkano kalean barrena Boulevardera doaz urduri. Info Zazpi irratia ari da gertatzen dena kontatzen. Plazan zegoen pertsona bat sartu da zuzenean



eta eman dituen azalpenen artean zera adierazi du: “Guk ez dugu plaza bat defendatzen, ideia bat defendatzen dugu”.

Ñabardura garrantzitsua da, izan ere, Gipuzkoa Zutiketik badu diferentzia bat orain arte Euskal Herrian ezagutu diren beste plaza-okupazioekin. Epaiketa politikoak salatzeko antolatu izan diren Askeguneetan, adibidez, kontakizunaren parte bat beti dago poliziaren esku: ekintza amaitzen da agenteek babestutako pertsonak atxilotzen dituztenean. Bidegabekeria plaza publikoan eta elkartasun-giroan gerta dadila lortzen da, baina gertakariaren abiapuntua injustizia da beti. Gipuzkoa Plazan, ordea, abiapuntua justizia sortzen hastea da, plazan egiten diren ekintzetatik hasita; eta horrek polizia bigarren mailako aktore bihurtzen du.

Nahiz eta, arratsalde berean, kanpaldia Gipuzkoa Plazara itzuli baino lehen, manifestazio baketsuan zegoen jendearen artekin pertsona bat aukeratu eta atxilotzen saiatuko den Ertzaintza. Biharamunean ere, polizia autonomikoaren dispositibo handia agertuko da eta bi lagun atxilotuko ditu desobedientzia delitua leporatuta –epaileak auzia artxibatu du bi egun geroago–. Badirudi asteak aurrera egin ahala, agintariek ezikusiarrena egiteari utzi eta erreazio-dinamika batean sarrarazi nahi izan dutela Gipuzkoa Zutik, herritarrek ordena publikoko arazo batekin lotu dezaten, plazaratu nahi dituen problema sozialak estaliz.

Bitartean, batzarrak jauzi txikiak ematen jarraitu du: ekainaren 2an bertan, emakumeek asanbladetan gutxiago parte hartzen dutela ikusirik, more koloreko ileorde bat janzten hasi dira gizonak hitza hartzen duten aldiro. Buru batetik bestera dabil ileordea eta horrela, gutxienez, parekidetasun ezaren problema ikusaraztea lortu dute. Hurrengo urratsa parte hartzea berdintasunezko baldintzetan ematea izango da.

Esperientzia politiko aurre-figurati- bo bat daukagu parean: David Graeber antropologoak deskribatu izan duen

Ekintzak biderkatu egin dira maiatzaren 29tik: turistek erraustegiaren arriskuez informazioa zabaltzen aritu ziren Kontxan eta haurrak ere lasai ibili dira kanpaldian. Larunbatean manifestazio koloretsu eta jendetsuak Donostiako kaleak bete zituen.

» Erraustegiaren kontrako mugimendua baino zerbait gehiago da hau: Zubietako planta sinboloa da, politika egiteko modu bat ordezkatzeko du

» Epaiketa politikoak salatzen antolatutako Askeguneen aldean, Gipuzkoa Zutik poliziaren esku hartzeak eragin txikiagoa izan dezakeela dirudi

» Gizartean ezarrita dauden estereotipoak haustea da erronka: nola lortu ahalik eta mezu integratzaileena?

KAZETARI MORROI-NESKAMEON ALDE ERE ARI DIRA



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Ekainaren 1eko ETBren iluntzeko albistegia Gipuzkoako taberna batean ikusi zuenak, labur jakin zuen tentsio momentu batzuk gertatu zirela Donostian ertzainen eta Gipuzkoa Zutikeko gazteen artean, betikoak izan behar zuten, ertzainek makilaz jo behar izan zituzten antza. Zer azio berri asmatu ote zuten?

Irudi labur horien ostean, luzeago, Biriartuko autopistako peajea sindikalistek blokatuak, bengalak sutan, bidea etenda *comme-il-faut*, protestan ari direnen ordezkari baten deklarazioak, gero muga aldeko blokatzeen irudi gehiago, ondoren beste baten iritzia... Hau bai mobilizazio polita, txukuna, europarra, frantsesek badakite, Occupy Wall Streeteko amerikarrak bezala, ai M15eko *indignado* madrildarrak. Ondo ematen dute Teleberrin.

Ekainaren lehenbiziko asteazken arratsaldean Donostiako bulebarretik Gipuzkoako plaza arteko ibilaldian izan gine-

nok ez genuen ezagutu guk ikusia ETBn azaldukoan. Aldiz, han gertatu zenak telebistako istorio on baterako eman zezakeen. Gipuzkoa Zutik? Guk azalduko dizugu bi minututan. Dena denen bistan egiten dutenez, zergatik ez ditu ezagutu behar euskaldunak 800 pertsona haien aurpegiak, hango giroa, aldarrikapenak, argudioak, moduak?

Esan liteke bigarren fase batean sartu dela Gipuzkoako erraustegiaren aurka mugimendua, duela gutxi arte ez zen esistitzen, orain gerrako etsaitzat borrokatzen dute. Isilik dagoen *Diario Vascok* laster ekin behar dio, matxinoek hedabide elektronikoetan oihartzun pittin bat gehiago lortu bezain pronto.

Arratsalde hartan, lehengo Bar Lasarteren parean, Gipuzkoa Zutik banderaren inguruan jendea eserita, adineko amandre bat hurbildu zitzaizen ertzainei, kazetariak entzun ahal izan zioten: "Jau-nok, oso urduri jartzen nauzue, zuen arma horiek guztiak eskuetan, orain dela 40 urte bezala, baina gazte horiek esku hutsik datoz, mesedez, utz itzazue bakean... Zuen alde ere ari dira borrokan!"

moduan, honelako mugimenduen eguneroko praktikek islatzen dute nolako mundua sortu nahi duten. Normalizat ditugun harreman motak ez direla aukera bakarra -ezta hoherena ere- sine-tsita, gaur bertan ekiten zaio lortu nahi den gizarte-ereduan bezala funtzionaltzeari. Hori bezain sinplea. Hori bezain konplikatu.

Aurrez ezarritako sailkapen sozialak nola gaingitu

Marina Sánchezek esplikatu du zergatik den zaila, ekainaren 3an ekonomia feministari buruz eman duen hitzaldian. Bere esanetan, sistemak gizartea zatitan banatzen du eta pertsona bakoitzari rol batzuk ezartzen dizkio. Sakabanatze hori botere-mekanismo bat da: horri esker gordetzen dira eremu pribaturako kolektiboak izan behar luketen problemak, asanblada batean nork hitz egiten duen, adibidez. "Bizitza baloratzen hasten garenean jabetzen gara zenbat bizitzeko era desberdin dauden", dio

Sánchezek adi entzuten dion talde bantentzat.

Eta bai, hemen batzuk hasi dira baloratzen, "Bizitza da handiena" ez da alferrik bihurtu Gipuzkoa Zutik eslogan nagusietako bat. Orain bizitzen ugaritasuna kontuan hartuz, geroz eta jende gehiagori hitz egingo dioten formulazioak sortzea da lana. Ezagutzen ditugun nortasun-eskemak gaingitzea askoren kezka da plaza honetan. Ekai Txapartegi filosofoak maiatzaren 31n galdera jarri zuen mahai gainean: "Nola pertzibitzen gaituzte plaza honetan ikusten gaituztenek? Gure benetako-tasunetik, nola neutralizatu dezakegu jendeak gutako bat ez izateko daukan hasierako jarrera?"

Non gauden kontuan hartuta, ez da zeregin erraza. Oraindik hurbil sentitzen den gatazka armatuak oso marko identifikagarriak utzi ditu herentzian eta tresna baliagarria dira aldarrikapen ugari marjinalizatzen saiatzeko. Aski da atzean ezker abertzalea dagoela esa-

tea. Iñaki Anasagasti EAJko politikariak badaki zerbait horretaz, Gipuzkoa Zutik ETArekin lotu baitu bere blogean idatzi duen testu batean -tonua zein den ulertzeko, aski da esatea "*¡Alerta Euzkadil!*" hitzekin amaitu duela-. Jokamolde hori aho biko ezpata bihurtu daiteke ordea: mugimenduak gizartearen sinpatia lortzen baldin badu, mota horretako sailkapenak geroz eta sinesgaitzagoak bihurtuko dira iritzikoaren antzera.

Amador Fernández-Savater igandean pasa da Gipuzkoa Plazatik. Hitz egitera gonbidatu zutenean aurreikusten zuen identitate-gatazka oraindik pisu handia izango zuela honelako mugimenduko batean, baina jaso dituen azalpenak entzunda, M15arekin antzekotasunak dituen mugimendua iruditu zaio. "Maitemintze fasean" ikusten du Gipuzkoa Zutik, hasierako energiarekin, gauzak berez ateratzen diren momentuan. Madrilen duela bost urte izandako esperimentziaz hitz egin du esplikatu duenean, ondoren, heldutasun unea iristen

dela, eta bidean problemak izango direla. Gaingintuz gero, taldea indartuta aterako da. Sol plazako kanpaldiarekin diferentziak ere sumatu ditu: kontsentzuak lortzeak garrantzi berezia zeukan han eta horrek ekintzetara pasatzea atzeratu zuen; hemen berriz, batzarren izaera ez hain zentralak erraztu egin du talde txikiagoek berezko iniziatiba hartzea. Hizkera eta ikonografia berriak sortzeaz ere mintzatu da, baita plaza txukun edukitzeaz ere, kanpotik datorenak espazio lagunkoia ikusten baldin badu errazago parte hartuko baitu.

Edizioa ixteko ordua gainean dugu Gipuzkoa Plazara azken deia egin dugunean. Albiste eman berri dute Twitter bidez: "Asanbladan argi gelditu da, #ezgoazetxera hemen gaude eta aste honetarako egitaraua prestatuko dugu. Egon adi deialdiei!". Lekukoek diotenez, igande eguzkitsu honetan haur dezente ibili da parkean; eta jendea belarretan eserita ikusita, turistak ere bertakoak bezala egiten hasi dira, kanpaldiko paisaiaren parte bihurtuz. Zaila da aurreikusten testu hau irakurtzen duzunerako zer gehiago gertatua izango den. ■



Zer norabide hartuko du mugimenduak? Askotariko jendea kalera ateratzea lortu du hasi eta berehala. Politikoki parte hartzen ez duen herritar gehiagorengana iristea du orain erronka.



ITSAS MENDI

Karabanak eta autokarabanak



► Europako marka garrantzitsuenak:

KNAUS, HYMER, HOBBY, BENIMAR, PILOTE.

Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua

itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com

Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)

Tel. 943 59 32 90 - Faxe: 943 59 41 73



**ARALAR
KANPINA**

Plazaola kalea, 9
31870 Lekunberri
info@campingaralar.com
www.campingaralar.com

**LOPERENA
ETXEBERRI**
landetxea

Goldaratz (Nafarroa)

☎ 948 503 238

casaetxeberri@gmail.com



Aldori
landetxea

Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)

☎ 94 627 15 09

www.aldiri.es



TEKNOLOGIA MOTXILAN SARTU ZAIGU

Iparratza, mapak, oinarritzko hiztegia, argazki kamera... Bidaiari ekin aurretik hamaika tramankulu sartzen genuen gutxi arte motxilan. Gaur egun, ordea, horiek guztiak gailu mugikorretan ditugu eskura, orotariko baliabideak eskaintzen dituzten hamaika aplikazio medio. Horietako batzuk ekarri ditugu orriotara: mendizale, surflari eta txirrindulariek balia ditzaketenak, geolokalizazioa ardatz; museoetan edota hirietako kaleetan dauden paneletako azalpenak nahi dugun hizkuntzan irakurri eta entzuteko aukera eskaintzen digutenak; turismo kolaboratiboa oinarri dutenak; altxorraren bila aritzen den komunitate bereziak darabiltzanak... Eta bukatzeko, gomendio bat: oporretan zaudetela itzali itzazue telefono, ipad eta tabletak, deskonektatzeak balio baitu konektatzeko.



Sakana

HARITZEN BIDEA
CAMINO DE ROBLES



www.sakana.eus

Bidelagun
Sakanako turismo elkarte





Juantxo
TABERNA

Ogitarteko
eta pintxo
bero zein
hotzetan
espezializatur

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

Ongi pasa eta baliatu, baina ez zaitzala pantailatxoak jan



Xabier Letona
@xletona

Internetek aspaldi zabaldu zion munduko leihorik handiena herritarrari eta aisialdia ez da iraultza horretatik kanpo geratu. Azken urteetan, hala ere, teknologia berriek beste milaka leiho txiki zabaldu dituzte bizitzako ia alor guztietan eta gainera, sare sozialen bidez, hori guztia partekatzeo aukerarekin. Ondorengo lerroetan mendian, bizikletan, itsasoan eta aisialdiko beste hainbat alorretan erabili daitezkeen aplikazio eta guneak aipatzen dira. Geolokalizazioa da horietako askoren oinarria. Edozelan, tresna hauek erabiltzen dituzten mendizaleetako batzuk ohartarazten ari dira jada adi ibiltzeko, inguruneari baino pantailari begira denbora gehiago pasatzeko arriskua hedatzen ari dela.

Wikiloc, milioika ibilbide

Aire librean egiteko kirol edo jardueretarako ibilbideak partekatzen dira bertan, guztiak geolokalizazioa erabilita. Mendian, espazio naturalean edo errepidean egindako ibilbideak dira, oinez, korrika, bizikletaz, eskiz, raketaz edo motoz egin daitezkeenak. Ia 2 milioi pertsonak partekatzen ditu munduko osoko 4,5 milioi ibilbide eta 7 milioi argazki. Google Maps edo Open Street Mapen gainean dago eraikia eta ibilbide bat nahi diren GPS markekin hornitu daiteke, aldi berean amu gisa edo ibilbidea lagungarri egin dezaketen argazkiak gehituz.

Orux Maps, internet gabe

Mapen gainean GPSarekin ibili eta gure ibilbideak egiteko beste aplikazio bat da. Bere ezaugarri garrantzitsuenetakoa

da off-line ere erabili daitekeela, hau da, ez dela internet konexiorik behar berarekin aritzeko; horrexegatik, askok deitzen diote mendizalearen GPSa. Bere mugarik handiena, alabaina, sinplea da, mendian bederen: bateriarekin dabilela eta hau agortu egiten dela; bistakoa bai, baina oso kontuan hartzeko, batez ere mendian egunak egin behar direnean.

GPS Status, lagungarri

Kontrakoa saltzen den arren, teknologiararen mundua ez da biribila beti. Esaterako, erabiltzaile asko kexu da Android sistemak GPS konexioetan eman ohi dituen arazoekin. Bada, honetarako ere bada konponbiderik aplikazioetan, adibidez GPS Statusekin. Aplikazio honek, funtsean, GPSarekin azkarrago konektatzeko aukera ematen du. Horrez gain, baditu hainbat tresna, esaterako, iparrorratza, nibelatzaileak edota gure posizioa partekatzeo aukera.

Layar, errealitate areagotua

Iraganean, aplikazio hau beti egon da lotua etorkizunarekin –batez ere zinemaren bidez–, baina badira urteak bertan dugula, egungoa da; hori bai, azken bizpahiru urteetan asko zabaltzen ari da. Funtsean, errealitatea “handitzen” du, hau da, gure mugikorrek –telefonoe-kin, tabletekin...– zerbait enfokatzen ari garenean toki horrek duen informazio birtuala eskaintzen digu. Bi irudi gainjartzen ditu, lehendik landua dagoena eta gu hartzen ari garena; irudi edo toki horrek aurretik duen informazio birtual guztia agertuko zaigu.



Arriola Txiki
NEKAZALTURISMOA

Arriola auzoa · 20829 Itziar
arriola_txiki@hotmail.com
☎ 943 192 000 / 606 522 147



Autocares-Aizpurua
KLK BATEAN
ZURE ONDOAN

943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es



ANZIZAR
CARAVANING

TOLDOAK · BEROGAILUAK · BIGARREN BATERIAK
ALARMAK · GIRATORIOAK · MULTIMEDIA

☎ 943 881 700 · Beasain (Gipuzkoa)
anzizar@anzizar.com · www.anzizar.com



Alpify, segurtasuna

Aplikazio honekin jolas gutxi, baina hobe deskargatua izatea, erabiltzaileen segurtasuna handitzea baitu xede. Internet konexiorik gabe ere, mugikorraren koordenadak irakurtzen ditu eta 112 edo bestelako larrialdi zerbitzuetara konektatua dago. Erabilera sinplea da, aplikazioa eta smartphoneko GPSa aktibatua izan eta larrialdi egoeran botoi gorriari eman. Hobe erabili behar ez bada, baina badaezpada funtsezkoa da gainean eramatea.

Strava, korrikalari eta txirrindularientzat

Beste hainbatek moduan, aplikazio honekin ibilbideak partekatzen dira. Erabiltzaileek bi ezaugarri nabarmentzen dituzte: batetik, ibilbideak egin eta partekatzeko erraztasunak eta bestetik, lehia neurtzeko aukera. Norberak egindako denborak eta izandako errendimenduak zehaztasun handiz jasotzen ditu eta besteenarekin konparatzeko aukera ematen du, rankinak ere osatzeko aukera eskainiz. Kirol hauetan nor-

berarekiko edo gainerakoekiko egun dagoen lehia ikusita, hobeto ulertzen da mundu horietan duen arrakasta.

Klasikoak, baina eraginkorrak

Snow Forecast eta Sur Forecast. Webgune sinpleak dira, baina zehatzak. Izenak dioen gisan, elur eta surfaren munduko eguraldi iragarpenak ematen dituzten webguneak dira. Zenbat elur egingo duen zentimetrotan, izotzaren altuera, haizearen norabide eta abiadura, olatuen tamaina... Surfaren kasuan gehitzen ditu norbera dagoen tokiko inguruetako hondartza eta surfa egiteko behar den oinarritzko informazioa. Blogak ere dozenaka dira, merezi du horietan arakatzea eta hauetan bai, teknologia eman ezin dezakeen informazio ugari aurkituko daiteke. Pirinioetako eguraldia eta mendi eskia jorratzen duen bat, esate baterako, oso modan dago azken urteetan: www.lameteoqueviene.com, mendebaldeko Pirinioetako egualdiaz eta elurraren egoeraz halako zehaztasuna toki gutxitan eta, gainera, mendi eski ibilbide bikainez hornitua. ■



GoroziKa aterpetxea

GoroziKa auzoa 25,
Muxika (Bizkaia)

www.gorozika.com

Harremanetarako:
946 731 332
gorozikanatura@gmail.com

Azpea

Jatetxea-Restaurante

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)

☎ 948 880 433

www.bodegasazpea.com



URPA autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak

Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko



Ubilluts auzoa · 55. poligonoa · 9. eraikina · 4
Andoain (Gipuzkoa) · Tel.: 943 305 050
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com



**Jatetxea
Taberna**

*Janari
tradizionalean
espezializatua*



☎ 943 429 875
Fermin Calbetón, 3
20003 Donostia



**LIZARRA
KANPINA**

LIZARRA (NAFARROA)
☎ 948 55 17 33
www.campinglizarra.com

Ez ahaztu museora sakelakoa eramatea



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Esther Ferrer artista donostiarrak egin-dako proposamena: ibilbide poetikoa Donostian zehar. Donostia 2016k Poesiaren Ibilbidea egiteko enkargua eman zion. Kale erakusketa da, 12 puntutan daude panelak, hala nola, Easo plazako kioskoan, Konstituzio plazan, Zurriolako erlojuan, Tabakaleran eta Koldo Mitxelena Kulturunean. Eman dezagun Easo plazako kioskoan gaudela. Panelaren barrenean QR kodea dago. Patrikatik sakelakoa atera eta QR irakurgailuaren bidez kodea eskaneatuko dugu. Webguneak esango digu: Elisabeth Khaxas, Enheduanna eta Itxaro Borda dira txoko honetako poeta gonbidatuak eta bakoitzaren poema bana irakurtzeko aukera izango dugu, euskaraz eta gaztelaniaz. Irakurtzeaz gain, olerkiok entzun daitezke. Horixe da Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia unitateak garatutako Gida Eleaniztunak plataformaren emaitzetako bat.

Beste adibide bat emango dugu. Donostiako Okendo Kultur Etxean *Ondasun Lapurtua* erakusketa eduki dute duela aste pare bat arte. Donostia 2016k erakusketako edukiak euskaraz eta gaztelaniaz sortu zituen, baina Gida Eleaniztunak plataforma erabiliz, alegia, erabiltzaileak bere sakelakoa erabilia, ingelesez eta frantsesez jaso zitekeen informazio bera. Itzultzaile eta esatari profesionalek moldatu zituzten jatorrizko testuak eta ahotsak. Itzulpen automatikoaren eta ahots sintesiaren bidez berriz, japonieraz, txineraz, italieraz eta alemanez sortu zituzten edukiak eta audioak.

Zenbat hizkuntzatar nahi duzu itzultzea?

Elhuyarko Itziar Cortesek eman dizkigu garatu duten plataforma horren inguruko azalpenak, eta bere ustez, proiektu interesgarria da museoetarako, erakusketetarako edo turismoarekin lotutako beste zenbait egitasmotarako. Turista mugimendua gero eta handiagoa da eta guztiekin komunikazio bideak aurkitzea ez da hain erraza. Nola kudeatu hizkuntzak museora datozenak dozena bat hizkuntz komunitetetakoak badira?

Gida Eleaniztunak plataformak Elhuyarren hainbat hizkuntza teknologia baliatzen ditu, oinarritzkoenak itzulpen automatikoa eta ahots sintesia dira. Edukiak prestatu dituenak, eman dezagun, museo baterako erakusketa prestatu duenak, berak erabakiko du zenbat hizkuntzatan eman nahi duen informazioa euskarri fisikoan –paneleko azalpena adibidez– eta zenbat hizkuntzatan emango duen interneten. Berak erabakiko du itzultzaile automatikoak erabili nahi dituen alemanez, japonieraz eta txineraz emateko edo nahiago duen itzultzaile profesionalak egitea lana. Gogora dezagun, orokorrean, itzultzaile automatikoek oraindik itzulpen maila bikaina ez dutela lortu eta editorearen lana behar izaten dela itzulpena txukun uzteko. Beste kontu bat da itzulpen automatiko bidez egin eta erabiltzailea horretaz ohartaraztea. Hala, jakingo du itzulpen eder bat ez duela irakurriko baina oinarritzko informazioa jasotzeko balioko diola. Antzeko ahotsarekin. Testua ahots bihurtzea modu automati-



Goiko argazkian, QR kodea irakurtzen Donostiako Poesiaren Ibilbideko gune batean.
Beheko argazkian, Gida Eleaniztunak proiekturako Elhuyarrek berriaz garatutako aplikazioa.

koan egin daiteke, baina bezeroak eska dezake ahotsa profesionalek grabatzea. Itziar Cortesen ustez, plataforma hau oso egokia da eduki eleaniztuna webgunean eguneratuta mantentzeko, eta garrantzitsutzat jotzen du testuen tamainarekin asmatzea: QR kodearekin atzitzen den edukiaren tamainak egokia izan behar du sakelakotik irakurtzeko eta entzuteko; esaterako, testua oso luzea bada, gailu mugikorrek pantailan irakurtzea nekezagoa izango da, eta audioa entzutea ere, deserosoa gerta daiteke.

Sistematik ikusmen urrikoentzat ere balio du. Batzuk ez dira panela irakurtzeko gai, baina bai QR kodea sakelakoarekin eskaneatzeko. Hala, museoak edo erakusketa antolatzaileak prestatu duen webgunean audioa entzungo du. Erronka guztiz itsu direnentzat moduren bat aurkitzea da, eta horretara nola iritsi aztertzen dabilta.

Gida Eleaniztunak plataforma museoetarako eta erakusketetarako aproposa dela uste du Itziar Cortesek. Turistak ikasteko gosez gain, besterik gabe gose ere izaten dira eta makina bat aldiz lanak izaten dituzte otorduak ulertzeko. Galdetu diogu ea egokia iruditzen zaion QRaren sistema menuetarako: "Plater bakoitzeko ezin jarriko duzu QR bat ondoan, baina plater aukera guztiekin zerrenda bat eginda zergatik ez erabili sistema hau? Izan daiteke". ■



ITZULPENAK AUTOMATIKO EGITEA NAHI BADUZU

Gida Eleaniztunak sisteman, itzulpen automatikoak egiteko gaztelaniazko bertsioa hartzen dute oinarri. Euskarara itzultzeko Matxin itzultzaile automatikoa erabiltzen dute; ingelese-
ra, galegora eta katalanera itzultzeko Openrad zerbitzua; eta gainerako hizkuntzetarako Google Translate moduko itzultzaile automatiko sistemak. Testua automatikoki ahots bihurtzeko Elhuyarrek bere ahots sintesi zerbitzua erabiltzen du euskara, gaztelania, ingeles, galego eta katalanerako. Beste hizkuntzetarako voiceRSS eta Google-ren ahots sintesi zerbitzuak darabiltza.

saiazgetaria
HOTELA



ROKE DEUNA 25
20808 GETARIA (GIPUZKOA)
Tel.: 943 14 01 43
info@saiazgetaria.com



KANPIN EKOLOGIKOA

Arbizu (Nafarroa)
☎ 848 470 922
info@campingarbizu.com
www.campingarbizu.com

Turismo kolaboratiboa gurpil gainean



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Ez duzu zertan jabea izan behar erabili ahal izateko. Trukatu, partekatu eta "prokomuna" sortzen duen ekonomia kolaboratiboaren printzipioetako bat da hori. Ez da kontzeptu berria, baina mota horretako kontsumoak indarra hartu du interneti esker eta turismoaren mundua ere hankaz gora jarri du.

Etxeko sofa eskaintzen duen CouchSurfing zerbitzua, gela bat alokatzeko balio duen Airbnb, edota garraiorako Uber eta BlaBlaCar enpresak ezagunak zaizkigu. Horietako askoren jarduna zalantzan jarri izan da maiz: lehia desleiala, prekarizatzea, gutxi batzuk lukratzea... Arautu gabeko abaraska da honakoa eta eztabaida saihestezina da.

Turismo kolaboratiboa akanpadaren arlora ere iritsi da. Ez dira gutxi auto-karabana partikularrak alokatzeko tresnak; AreaVan da gurean errege, Euskal Herrian jatorria duen webgunea. Badaude, baita ere, akanpatzeko toki pribatuak trukatzeko dituzten zerbitzuak, CampInMyGarden gisakoak.

Furgoperfecto, espazio publikoa berreskuratuz

Zu baino zaharra-goia den California edo lagunaren lane-ko furgoneta *campesinista* nahikoa dituzu ametsetako tokian izarrak doan ikusteko. Piri-nioetako magal honetan furgoneta zale asko dago eta interes handiz segitu ohi dira Furgovv.org foroan esaten direnak. Nork bere kabuz egindako konponketak azaltzeko eta erosketak taldean egiteko antolatzen dira erabiltzaileak bertan.

Foroaren atal bereziena Furgoperfecto mapa da. GPS koordenaden bidez furgonetekin gaua pasatzeko egokiak diren tokiak jarri eta lokalizatu daitezke. Baldintzak hauek dira: tokia doan izatea, isunak edo ohartarazpenak jasotzeko arriskurik ez egotea, ahal bada hainbat azpiegitura inguruan edukitzea (mahaiak, komun publikoak...), eta ba-



tez ere, bisitatzeko toki atseginak izatea.

Europa osoan ehunka "furgoperfecto" aurki ditzakegu, baina Euskal Herria da epizentroa zalantzarik gabe.

Mapa honek toki publikoak berreskuratzen du, aparkaleku eta urbanizatzeko mortuen erabilera komuna egiteko; *commons* lizentzia duen eremu libre bat, nolabait esatearren. Hori guztia, modu kolaboratiboan gainera, informazioa konpartitu egiten baita, denek izan ditzaten tokiaren abantaila eta desabantailen datu zehatzenak. ■



Gazte Aterpetxeak
Alberghes Juveniles
Youth Hostels
Auverges de Jeunesse

ONDARRETA GAZTE ATERPETXEA

Igeldo pasealekua, 25
20008 DONOSTIA

Tel. 943.31.02.68

www.donostia.eus/aterpetxeak
ondarreta@donostia.eus



GPSaren “demokratizazioak” abiarazi zuen mundu mailako **altxor bilaketa** jolasa



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: PAVEL ŠEVELA-CC BY SA

Labur esanda, geocachinga –uko egin diogu euskarazko hitz baliokide bat asmatzeari– ezkutatutako “altxor” edo *cache*-ak aurkitzeko helburua duen jarduera da, GPS teknologia baliatuta. Parte hartzeko, www.geocaching.com webgunean sartu eta kontu bat sortu beharra dago; behin hori eginda, mundu osoko ezkutalekuen koordenatuak izango dituzu eskura.

Ez duzu urrun joan beharko, ia europar guztiok bizi omen baikara *geocache* batetik oso gertu. Adibide modura: Hitz hauek idazteko erabili den ordenagailuaren inguruan 729 ezkutaleku daude. Bi milioi eta erdi *cache* daude munduan, 180 herrialdetan, eta dagoeneko hamar milioi pertsona daude izena emanda geocaching.com-en.

2000. urtean hasi zen guztia, AEBetako Gobernuaren erabaki bati esker. Ordura arte, GPS teknologiaren erabilerara mugatuta zegoen, Eskuragarritasun Selektibo esaten zitzaionaren bitartez. Funtsean, GPS sistemaren seinalea nahita degradatzean zetzan Eskuragarritasun Selektiboa, erabiltzaile zibilek

jasotzen zituzten koordenatuen zehaztasuna gutxitze aldera. AEBen segurtasunaren izenean hartutako neurria zen noski: militarrek ez zieten balizko terroristei lana erraztu nahi. Ejem.

Washingtonen iragarrita zuen beranduenez 2006an Eskuragarritasun Selektiboa ezabatuko zuela; azkenik, 2000ko maiatzaren 2an egin zuen. Albisteak poz handia eragin zuen GPS erabiltzeko zaletasuna dutenen taldeetan –bai, hori ere existitu egiten da–, eta haietako batetik, Dave Ulmerrek, sistemaren zehaztasuna neurtu nahi izan zuen. Maiatzaren 3an kubo bat gorde zuen etxe inguruko basoan, barruan hainbat objektu zituela, eta koordenatuak idatzi zituen GPS-zale webgune batean, “altxorra” aurkitzeko erronka zabaltzeaz batera.

Handik hiru egunera, bi pertsona iritsita zeuden Ulmerren kubora. Hilabete geroago, maiatz amaieran, geocaching hitza asmatuta zegoen, eta urte bereko irailean ireki zuten webgunea. Mundu osoko *cache*-en kokapena ez ezik, eskuko telefonoetan erabiltzeko app bat eskainiko dute –ez duzu arduratu behar



‘Cache’ bat zuhaitz baten beheko aldeko zuloan. Luze irauteko modukoak izaten dira, ura iragazten ez dutenak. Edukiontzia aurkitutako leku berean utzi behar dira; barruko objektuak, berriz, trukatu egin daitezke.

GPS seinalea jasotzeko gailua erosteaz–, eta bide batez forma eta tamaina askotako edukiontzia dituzte salgai. Batzuk erraz aurkitzekoak dira, beste batzuek aldiz kamuflajea dute helburu, perretxiko baten forma dutenetatik barraskiloaren oskola diruditenetaraino. Politena, dena den, nork berea lantzea da.

Ezkutatzaie zein bilatzaile, esan gabe doa bietan aritu zaitezkeela. Ezkutatutako edukiontzi bat aurkitutakoan, gogoratu webgunean berri emateaz. Bertan aurkituko duzun kaieran sinatzea ere ez ahaztu. batzuek objektu sinpleak dituzte barruan. Nahi baduzu bat eraman dezakezu, baina hala egitekotan beste bat utzi ordainetan, arren. Gainerako argibideak, www.geocaching.com-en. ■



Gazte Aterpetxeak
Alberghes Juveniles
Youth Hostels
Auverges de Jeunesse

ULIA
GAZTE ATERPETXEA

Ulia pasealekua, 297
20013 DONOSTIA

Tel. 943.48.34.80

www.donostia.eus/aterpetxeak

ulia@donostia.eus



Deskonektatu... inguruarekin konektatzeko



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: PAISAJESPARARESPIRAR

9 eta 14 urte arteko gazteen kezka nagusietakoa mugikorra galtzea da. Hala dio ikerketa batek, eta helduoi galdetuta ere, emaitza ez litzateke oso bestelakoa izango. Teknologiaren atzaparretatik ihes egitea gero eta zailagoa da egunerokoan, baina opor garairako terapia berri bat ari da zabaltzen: desintoxikazio teknologikoa.

Ez wifirik, ez mugikorrik, ordenagailurik, ipadik, tabletik... Teknologiari gabeko turismoa eskaintzen dute hainbat hotel eta lekutan. Pittsburgheko (AEB) Renaissance hotelean adibidez, bezeroek debekatuta dute aparailu teknologikoekin sartzeari; Dublingo Westin ostatuan, oporraldiak iraun bitartean kutxa gotorrean gordetzen dizkiete mugikorrak bisitariei; Valdevilla herria (Gaztela eta Leon) wifirik gabeko espazioa da eta 50eko hamarkadako bizimodu eskaintzen die turistei...

Digital Detox izeneko erakundea ere sortu da AEBetan, *Disconnect to recon-*



nect lelopean (Desintoxikazio Digitala: Deskonektatu birkonektatzeko). Antolatzen dituen jardueren artean, Camp Grounded kanpaldiak daude: ebook eta kamera digitalen ordeaz, yoga, eskalada, idazketa eta artisautza tailerrak, meditazioa... dira nagusi.

Tira, hain urrutira ere ez dago joan beharrik, naturaz, bakeaz eta inguruko lasai ederrean gozatzeko. Konexiorik eta estaldurarik gabeko txokoak aurki ditzakegu Euskal Herrian, batez ere mendialdeko hainbat landetxetan (Koostei Mutrikun, Artiketxe Urdaibain, Gorbeia Etxea Muruan...). Eta bestela,

soluzio erraza du aferak: hiritik atera eta itzali mugikorra. Senide eta lagunekin solastatu, esperimendu, jolastu, pantailatik harago dagoenaz disfrutatu; buruak eta gorputzak eskertuko dizute. Izan ere, teknologiatik noizbehinka ez deskonektatzeak atrofia kognitibo eta emozionala sor dezake, neurologo eta psikologoaren arabera.

Bai, hasieran kostatuko zaizu, ohiko webgunean azken berriak ez irakurtzea, sare sozialetako burutazioak galtzea, jolas birtualak alboratzea, baina whatsappetik bista altxatuz gero, aukeraz betetako mundua omen dugu inguruan. ■

BAZTAN
Euskal Herriko bihotzean

www.baztan.eus

Jean-René Etchegaray, Baionako auzapeza

“Tribunalek ezin dute erabaki herri demokratikoaren ordeza”

Beskoitze 1952. Abokatu. Zentrista. UDIko kidea (Demokraten eta Independenteen Batasuna). Baionako auzapeza 2014tik. Herriko Etxeko hautetsia 1995etik. Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko presidentea da. Elkarrizketa egin aitzin, hautetsi talde batek Herriarte Lankidetzarako Erakunde Publikoaren (HELEP/ Herri Elkargoa) aurkako helegite hierarkikoa jarria omen zuten. Jean-René Etchegaray agurtu ondoren jakin genuen 60 hautetsik helegitea ezarri dutela auzitegian: “Tribunalek ezin dute erabaki herri demokratikoaren ordeza”, errana zigun auzapezak elkarrizketan.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO



Lüküzeko Barthelemy Aguerrek eta Ar-mendaritzeko Lucien Delgue auzapezek Herri Elkargoa egitasmoaren aurkako helegite hierarkikoa aurkeztu omen dute.

Ez dut helegite hierarkiko hori esku-ratu. Badakit Parisko Barne Ministeriora iritsi dela. Ez dut ezagutzen bere edukiera, ezta sinatzaileen izenak ere. Ez nau harritu Barthelemy Aguerrek eta Lucien Delguek helegitea jarri izanak. Aguerrek Departamenduko Herri-arten Arteko Komisioan egin zuen

jada proposamena, Euskal Herriko eta Biarnoko bi herri multzo elkargo ba-karrean bateratzeko asmoz. Bere proposamena ikonoklasta samarra da. Departamenduko Komisioak ez zuen proposamena aintzat hartu. Helegitea-ren bultzatzaileek erabaki politikoak tribunalek hartzea nahi dute herritarrek hartu beharrean, baina tribunalek ezin dute erabaki herri demokratikoaren ordeza. Abokatuak naizen aldetik, 37 urtez zuzenbidean aritu naizen honek

ez dizu erranen horrela jokatzeko es-kandalagarria denik, erran dezaket, horrela jokatzeko dutenak ez direla fa-borarik egiteko ez plazerik emateko ari. Udalerrietako kontseiluek propor-tzio zinez garrantzitsuan erabaki dute: hautetsien %73k aldeko boza eman du [158 herriko etxeetatik 111 alde eta 47 aurka]. Aldekoek biztanleriaren %66 ordezkatzeko dute. Aldekoek sistema demokratikoaren barnean ari gara po-litikan.

Eraginkorra izan al daiteke helegite hori?

Helegite hierarkikoa, helegite administratiboa da. Administratiboa auzi-prozesalaren aurrekari izan daiteke. Herriko kontseiluen erabakien aurka joateko argudio juridikoak behar dira, baina kasuon, erabakia ez da soilik juridikoa, erabaki politikoa ere bada. Abokatu gisa mintzo zaitut orain: kontra ari direnek argudio juridiko asko erabili dezakete, baina orain arte ez diet entzun argudio politikoa funtsezko bat bera ere. Nik nahiago dut argudio politikoak izatea argudio juridikoak baino.

Eurek diote, politika egiteko era bat dela.

Nik ere politika egiten dut. Denok egiten dugu politika, baina badira erak eta erak. Nik ez dut proiektuaren aurka egotea deitoratzen, Herriarteko Lankideztarako Erakunde Publikoaren (HELEP) aurka egiteko aukera badago. Alta, helegitearen bultzatzaileek azaldu behar dute zergatik egin duten orain, Frantziako Estatuak lehen aldiz Herri Elkargoa instituzioa sortzeko proposamena egin duenean, gehiengoak bultzatua, gehien-goak baietz esan ondoren. Zergatik erabaki dute tribunaletara joatea, erabaki garrantzitsu hori hartu denean? Euren jarrera arras desagokia da!

Prefetak nola hartu dezake helegitea?

Prefeta estatuaren ordezkaria da, berak estatuaren interesak errespetatuak izatea begiratzen du. Euskal Herria instituzionalizatzeko arduraduna da. Gure lurraldeko hautetsien jarrera legearen markoan dago, herrialdea ahalik eta hobekien ordezkaria eta antolatua izatea da gure xedea. Prefetak ez digu ontzi edo molde gogor bat ezarri, Herri Elkargo bakarria eratzeko aukera eman digu, eta molde hori marko juridiko determinatu baten barnean dago. Guk gure beharren arabera instituzioa eratu ahal dugu, moldea malgua baita, gure ahalekin arabera moldagarria betiere. Prefetak ez digu diktatzen zer egin behar dugun.

Zein da aitzinatzean eman beharreko lehen pausoa?

Prefetak egungo herri elkargoaren fusioa ordenatzeko erabakia hartu behar du ekainaren hasieran. Guk, 2017ko urtarilerako bitartean, HELEP eta Herri Elkargo bakarria ezartzeko bitartekoak landu behar ditugu. Sei hilabetez lan tekniko eta politikoa gaitza dugu. Ikuska-



“Frantziako eskuinekoak, ezkerrekoak eta zentristak gaude Herri Elkargoaren proiektuan, baina maleruski, gure artean jakobinoak ere badaude”

“Erreforma hau ez doakio identitateari. Errepublikako lurraldeak antolatzeko ekimen berria da, herri arteko komunitate handiak sortzea xede duena”

ritza lana da. Herri elkargoaren [10 dira] bateratzeak egoera berria ekarriko du. Fusioak elkargoaren eskumenak baterarazi behar ditu: funtzionarioen zereginak batu behar ditugu, baita finantzen bitartekoak ere, fiskaltasuna eta hornidurak barne. Lehenbiziko ikuskaritza prestatzeko, oraingo herri elkargoaren hamar presidenteak talde aztertzailea eratzeko lanean ari gara, ni barne; Hautetsien Kontseiluko presidente naizen aldetik. Ondoren, gure azterketa bideratu behar dugu eta kabinet –herrien arteko fusio lanetan adituak– espezializatu eta pribatu baten esku utzi. Kabinetaren ondo-

riotan oinarrituta, funtsezko erabakiak hartuko ditugu egitasmoa abiatzeko.

Fiskaltasuna omen da arazoetako bat, hirigune eta herriguneen arteko desorekak direla eta. Enpresa handi eta txikien arteko harmonizazioa lortzea zaila da, antza.

Ez da egia fiskaltasuna dibergentzia puntu bat dela, biziki eztabaidatua izan da. Fiskaltasunaren inguruko gorabeherak arautu daitezke. Etxeko fiskaltasuna, pertsonen eta norbanakoen fiskaltasuna ez da aldatuko Herri Elkargo bakarria eratuko delako. Enpresen fiskaltasuna, hirien eta herrien arteko deliberoen arabera aplikatuko da, batzuetan igorak izanen dira, baina fiskaltasun edo zerga hauen igorak eragin apala izanen du enpresetan. Gainera, malgutasunez ariko gara: elkarren arteko desorekak harmonizatzen joateko zergak hamabi urteko epean ordaintzeko aukera izanen da. Herrien elkargoaren arteko langintzak ez ditu arazoak ezarriko fiskaltasunari dagokionez. Gobernantzari buruzko gorabeherak izan daitezke, oraindik ere hainbat gai erabakitzeke daudelako.

Hala nola...

Adibidez, Estatuak mendiko eta landako hainbat lurralderi eman behar dizkien dotazioak edo hornidurak oso konplexuak dira. Atala partikularra da.

Itsasaldea eta barnealdearen arteko oreka erdiestea garrantzitsua da ere bai.

Baiki. Baina, landa eskualdeek Estatuaren aldetik jasotzen dituzten hornikuntzak ez dira aldatuko Herri Elkargo bakarria eratuko delako. Kasurako,

Barthelemy Aguerren eta bere lagunen argudioak zinez paradoxikoak dira. Antolaketa berrian barnealdeko eskualde zenbait galtzaileak izanen direla diote, itsasaldeak barnealdea irentsiko duela, eta aldi berean, kontrakoa diote: barnealdeko herriek menpe hartuko dituztela itsasaldekoak, herri eta hauen ordezkari kopurua gehiago direlako. Denetariokak eta edozein gauza erran dute, hitz kontraesankorrak barne. Izatez, landa lurraldeek jasotzen dituzten hornidurretan –elkartasunezko hornidurak edo baserri mundua sustatzeko dotazioak–, jabeen herentzian eta etxaldeen segidan ez da aldaketarik izanen. Estatuaren erreformaren barnean ematen ari diren neurrietan ezarriko dira berme horiek.

Garraioan ere aipatu dira aldaketak.

Garraioari dagokionean, Estatuaren diru-sarrerara edo laguntza, garraioaren fiskaltasun arauari atxikia dago. Horri buruz ez ditugu erantzun definitiboak, finkatu gabeko puntua da. Gobernuak finantza lege berria prestatu nahi du abendurako. Estatuak lege erreforma berria aplikatu nahi du garraioaren diru-sartzeari buruz eta tasa tipoen gainean. Antza denez, landa eremuko enpresen tasak diferentziatuak izanen dira hiri-guneko enpresen tasetatik. Garraio optimoa duten eskualdeen antzeko diru-sartzea izanen da garraio eskas dutenentzat, edota garraio zerbitzua ziurtatuta ez dagoen landa eskualdeetan. Estatuaren administrazioa hiriguneak eta landa eremuak harmonizatzeko lanean ari da.

Departamentutik Herri Elkargora iragaten ari gara. Trantsizio garaian gaude, antza.

Trantsizioa ezohiko garaia da. Big Bang instituzional moduko bat bizitzen ari gara Frantzian. Erregio handiak eratu berri dira, eta gu horietako batean gaude. Austriaren lur zabaleraren eta Danimarkaren heineko biztanleria dituen. Europako herrialdeak eta estatuak dira biak. Horien tamainako erregio baten barnean bagaude, egizu kontu. Funtsezkoa da horretaz ohartzea, herrien bitartekoak gutxitzen ari direlako. Erregioak handitzen ari dira eta Herrien Arteko Elkargoak sortzen, gurea bezala, esaterako. Erregioek pisu handia hartuko dute. Departamendua Frantzian iraganeko egitura izatera pasako da laster. Politikoki eta juridikoki arrunt inportantea da aldake-

ta, Departamenduak konpetentzia orokorren klausula galdu baitu, honezkero ez dute turismoaren, ekonomiaren, ezta garraioaren ardura ere. Une honetan, gai sozialen ardura besterik ez dauka.

Herri Elkargoak bereganatuko al ditu konpetentzia horiek?

Beharko ere. Herriko etxeak gero eta desjabetuago geratzen ari dira, ez dute bitartekorik. Sortzen ari diren ingeniari lan-molde berriak ez zaizkio iristen, beren konpetentziak indarrean jartzeko bitartekariak ez dituzte menperatzen. Horregatik Herri Elkargoak ahalmen horiek hartu behar ditu bere gain, bera da hori bermatzeko erakunde bakarra. Batzuek diote, Herri Elkargoak herrien akabera ekarriko duela. Alderantziz, Herri Elkargoa salbamendurako erakunde bakarra da.

Batzuen ustez, Herri Elkargoa abertzaleen aldarrikapenei erantzuteko eratuko dela.

Hori faltsua da. Erreforma hau ez dago kio identitateari. Errepublikako lurraldeak antolatzeke ekimen berria da, herri arteko komunitate handiak sortzea helburu duena. Frantziako Barne Ministerioak ez du bitarteko instituzional bat sortu, nortasunaren aldarrikapenei erantzuteko. Ni ez naiz abertzale, eta hala izan gabe ere, gure lurraldearen aldeko proiektu ona dela erran dezaket. Aldi berean uste dut, herrialde honek normaltasun instituzionalaren beharra daukala. Beraz, hainbat abertzalek pentsatuko dute hau dela etapa bat Euskal Herria instituzionalizatzeko. Ni, abertzale askoren gisara, Lurralde Kolektibitate espezifikaren alde nintzen. Baina aldarrikapen hori, egungo gobernu sozialistak errefusatu zuen. Haatik, HELEP egitasmoa ez dugu abertzaleen eskaerari erantzun bezala hartu behar. Abertzaleak ez dira inoiz etapa honen aldekoak izan, baina ez dira kontra jarri ere. Funtsean, Frantziako eskuinekoak, ezkerrekoak eta zentristak gaude, baina maleruski, gure artean jakobinoak ere badaude. Dena den, gehiengoak adostu du bide hau urratzea. Proiektu hau ez da ezkerrena, ez eskuinarena edo dena delakoa. Ekimena ezkerreko gobernu batek onartu duen lege bati esker [NOTRE legea] aurrera joan da, ezkerreko gehiengoak duen parlamentu batek onetsia. Hartara, ez dut ulertzen bidean jarrera oztopagarriak izatea.

Batzuek diotenez, Herri Elkargoa Baionari eta Jean-René Etchegarayri esker eratu-ko da. Bestela ia ezinezkoa litzateke.

Baiona garrantzitsua da gai honetan, gainera bera izan da jarrera hartzen lehen hiri handienetako bat. Baina, ez da bakarrik Baiona, HELEPren aldeko gehiengoaren baiezkoa Baionaren baiez- zik gabe ere aterako zen aitzina. Egia da, Baionako 48.000 biztanleak Euskal Herriko 295.000 biztanleen artean egoteak biziki laguntzen duela. Niri dagokionez, egitasmo hau ez da atzokoa, hogeit urte luze dira euskal instituzioaren alde en- gaiatua naizela, helburu horretara iris- teko bide egiten ari naiz, baina ez naiz bakarra. Hautetsi anitz ari dira, joera politiko guztiak ordezkatzeko dituztenak.

Herri Elkargoa eratze bidean, euskararen inguruan kezka dago.

Euskararen Erakunde Publikoa (OPLB) Hautetsien eta Garapen kontseiluek zutik ezarri zuten bitartekoa da. Eskertu beharreko lan handia egin da haren bi- dez. Orain, azken Lurralde Kontratua (Estatua-Erregioa) sinatu dugu Estatua- rekin, eta bereziki, Kontratuaren Euska- ra atala aintzat hartu dugu. Guk behin eta berriz hauxe azpimarratu dugu: kontratua sinatu dugu eta berau be- rrikusteko klausula bat ezarri ere bai. Kontratua 2020. urtera arte sinatua da, anartean badago elkar ikusteko hitzordu bat, Estatuaren aldetik onartua. Kontra- tua 2017an berrikusiko dugu. Erabakia Estatua, Erregioa eta Departamendu- ren esku dago oraindik ere, baina guk Estatuak hizkuntzari ekarri behar dion sostenguari buruz hitza hartzea badugu.

Herri Elkargoak euskarak behar duen be- rezko saila izanen al du?

Hazparneko tailerretan Kultura eta Hiz- kuntza saila landu da. Euskarari eta OPLBri sostengua ematen jarraitu behar dela kontuan hartu da, legearen bitartez. Uneon, OPLBren diruaren finantzazioa %9 herriko etxeek emana da. Gainera- koa, Estatu, Erregio eta Departamendu- tik heldu da. Hautetsien Kontseiluaren aburuz, Estatu-Erregio-Departamen- duarekin kontratua amaitzen denean, 2020. urtean, herriko etxeen diru lagun- tza %9tik %21era igotzea nahi dugu. He- rri Elkargoa osatzen badugu, instituzio honen ardura eta xedea hizkuntza po- litika ziurtatzea izanen da. Eta ez soilik euskararena, okzitanierarena ere bai. ■

Esklaboen ogia



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Greziatik ekarri dut suzko zuhaitzaren berri, *Grevillea robusta*. Baina zer historia eta istorio ditu suzko zuhaitzak? *Grevillea* izena duen generoak biltzen duen landare jendea Australasiakoa da. Izena Charles Frances Grevilleri zor dio, haren ohorez jarria baitu. 1749tik 1809ra bizi izan zen politikari ingeles aberatsa zen. Naturaz aparteko interesa zuen, eta baratzte zabalak landu zituen, baita berotegiak ere. Bere azaña ezagunena 1807ko neguan egin zuen: banilla fruitua ematen duen *Vanilla planifolia* orkidea lorarazi zuen berotegian, ordura arte sekula lortu gabekoa.

Greville jauna Joseph Banks (1743-1820) sonatuaren laguna zen. Biak naturazale amorratuak eta Society of Dilettanti bereziaren partaide. Elkarte horrek garai bateko Greziako eta Erromako artearen ikerketa sustatzen zuen; nahiz eta Horace de Wolpolek 1743an "Italian izandako mozkor jende baten elkarte" zela zioen.

Banks jauna hara eta hona ibili zen Amerikan, Ozeanian eta Asian lurralde "berrietako" landareen bila: eukaliptoak (*Eucalyptus sp.*), akaziak (*Acacia sp.*) eta bere ohorez bataiatutako *Banksia* generoko landareak ekarri zituen lehenengoz Europara. 1768-1771 artean Cook kapitainaren *Endeavour* ontziaren bidaldi izugarriaren partaide izan zen; horretarako, zazpi laguntzaile eraman zituen: bi botanikari, bi artista, idazkari zientifiko bat eta bi zerbitzari beltz. Bidaia horretan, Tahitin ezagutu zuen ogi zuhaitza edo ogi arbola, *Artocarpus altilis*. Arbola hori emalea da: fruitu handia du, eta ogi egin berriaren usaina du. Hortik izena: *Artocarpus*, grekoko arto (ogia) eta *karpos* (fruitua) eta *altilis* latinez "lodia" esan nahi duen hitzetatik datoz.

XVIII. mendearen bukaera aldera, Ingalaterrak Karibe aldean zituen kolonietako esklabo langileei jatena merke eta hazkurritsua emateko asmoz, ez zekiten zer asma. Banks jaunari 1787an otu zitzaion



Ogi arbola (*Artocarpus altilis*).

bidaldi bat antolatzea: Tahitira ontzi handi bat bidali, ogi arbolez bete eta Karibe aldera ekarri. Esklaboak izan daitezkeela buruan duenak eskifaia ere antzera tratatuko zuen eta, marinela matxinatu eta arbolak eta kapitaina bere zaleekin itsasoan utzi eta *HMS Bounty* ontziaz jabetuta, Tahiti aldera bueltatu ziren. 1791n bai lortu zuten, bigarren bidaldian, esklaboen lurraldeetara ogi berria eramatea. Ez omen zitzaion gstatu... ■



Udaberriko irrika

Udaberriroko eztabaida: zer da goxoena, ilarra (*Pisum sativum*) edo baba handia (*Vicia faba*)? Nik zalantzarik ez dut: baba handia. Tipulin batekin olio pittin batean erdi erreta, a zer luxua! Felix lagunak patatekin (*Solanum tuberosum*) jaten omen du. Ni ere patatazalea baintz, halaxe jango nuke. Oraintxe loratzen ari dira patatak, eta seinalea da lorea: lurpean tuberkuluak osatzen ari dira. Hartu horzbikoa eta harrotu patata ipurdi batzuk. Hor azalduko zaizkizu patata berriak, azal eta guzti jateko modukoak, guri-guri. Udaberriko irrika!

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO



TRITICATUM

Antzinako gariak berreskuratzen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Nekez pentsatu izan zuen Víctor García Torres errotariak duela 30 urte seme eta alabei egiten zizkien papiletatik egun proiektu sendo den ekimena aterako zenik: Triticatum. Antzinako gari barietateen berreskurapena ardatz hartuta, apirilaren 21ean Zarauzko (Gipuzkoa) Lakari kooperatibaren izenean, Hazizaleak elkarteak antolatuta. “Errota txiki bat utzi ziguten etxean, eta gari, arto edo garagarrarekin papilak egiten genituen. Lagunak hasi ziren haien zatiak ere eskatzen, eta horrela hasi ginen pixkanaka”, kontatu du García. Erabiltzen zituen irinak nondik zetozen jakiteko gogoak piztu zitzaion, zein garitatik ateratzen ziren, zein motatako gariak zeuden, zein ezaugarriekin, eta abar.

Galtzen utzi gabe

Triticatumen helburu nagusia antzinako gari barietateen prospekzioa egitea da, horiek erabat galdu baino lehen. 400 barietate baino gehiago identifikatu dituzte urte hauetan guztietan, eta horietako askorekin frogak egin dituzte haien ezaugarriak ezaugarriak aztertzeke. “Dokumentazio lana egiteaz gain, badugu lorategi botaniko bat gari barietateen ugalketa egiteko”. Barietate bakoitzaren ezaugarri agronomikoak aztertzen

dituzte Triticatumen: gaitzei zer moduz erantzuten dieten, belarrarekin ongi lehiatzen ote duten, ontze zikloa, altuera, galburuaren forma... Lortzen dituzten arto barietateekin hazien bankua ere osatu dute elkarteak kideek.

Egungo ekoizpena, produkzio industrialaren menpe

García azaldu duenez, “antzinako gariak ogi on bat egiteko gariak ziren, Mesopotamia garaitik zetozenak, oinarritzko elikagai osasuntsua egitekoak”. Alderantziz, egun ekoizten diren gari barietateak produkzio industrialera begira aukeratuak dira: milaka kilometro egiten dituzte gugana iristeko, nitrogeno eta aditibo sintetiko ugari erabiltzen dituzte lurretan, gaitzak eta ekiditeko produktuek erabili behar izaten dituzte...

Tokiko gari barietate zaharrek, berriz, mendeetan klima horretara “ohitu” egiten dira, gaitzei eta belarrari errazago aurre egiteko gaitasuna hartuz. “Penintsulako zonalde bakoitzean bere gari barietateak landatu izan dira; horrek badu hurbiltasunaren eta bidezko merkataritzaren balio erantsia”. Egun kontsumitzen den irina ekoizpen kostutik behera dagoela azaltzen du García, eta noski, jatorritzko herrialdeko laborariei oso gaizki ordaindua. ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
t @bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 • www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Ekainak 10: Mutriku

Galdona auzoko kanpinean, 20:00etan.
Mutrikuko Baserri Elkarrekin antolatuta.

Ekainak 11: Gellao (Eskoriatza)

Auzoko elkartean, 11:30ean. Muruondo
elkarrekin antolatuta.

Ekainak 14: Barañain

Sahats euskaltegian, 19:00etan. Kultur
Astearren barruan.

Ekainak 15: Urretxu

Gaztetxean, 19:00etan. Baserri Astearren
barruan.

Ekainak 19: Agurain

Araba Euskararen, egun osoan. Liburua
eskuratzeke aukera eta kontsultategia.

Ekainak 22: Getxo

sOrtuak ekimeneko baratzeetan,
19:00etan. (Eguraldi txarra izanez gero
aterpera aldatuko da). Antolatzailea:
Egizu Getxo Euskaldun.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus
943 371 545



Fagorreko euskara batzordeetako kide batzuk, iaz egindako barnetegi batean.

FAGOR KOOPERATIBAK

Euskara ikasteagatik ARGIA opari



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Bizi honetan batzuk zortekoak dira, irakurle. Nik behintzat ume umetatik ikas-kide eta lagun batzuk izan ditut zozketa bakoitzeko zerbait tokatzen zitzaienak, eta ni berriz beti ondoan, esku hutsik normalean. Fagor enpresan euskara taldeetan dabilzanen artean urtebeterako harpidetzak zozketatu dituzte, eta seguru nago hor ere badagoela aipatu zorteko pertsonarik. Baina tira, ez natorkizue zortez hitz egitera, zozketaz baizik.

Fagor kooperatibak lehendik bazuen ARGIArekin harremanik, baina askoz modu azalekoagoan. Urteroko finantziazioa egin eta listo. Iaztik dator, ordea, ARGIAri eman nahi zaion laguntza moduaren planteamenduri buruzko Euskara Batzordearen hausnarketa. Diru-truke huts bat izan baino elkarlanerako gogoia jarri da mahai gainean, eta galdera batea iritsi dira. Zergatik ez harpidetu?

Euskara taldeak bat baino gehiago dira Fagor osatzen duten zazpi kooperatibetan. Langileek euskara ikasi edo maila hobetzeko planak dituzte eginda,

eta ikasleei sari modura urtebeteko harpidetza oparitzeko ideia atera da. Alde batetik ikasleek euskaraz irakurtzeko aukera izango dute eta ARGIAk bost harpidedun berri izango ditu. Asterokoa izan beharrean hilean ale bat jasotzeko harpidetza da, eta urtero zozketa berria egin eta sarituak aldatzen joateko asmoa dute.

Zazpi kooperatibetatik hiruk lehendik jasotzen dute astekaria, eta horrekin ere lanketa egin nahi izan dute erabilera egokiena eman ahal izateko. Aldizkaria jasotzen den kooperatiba horietako harriaren guneetan jarri da ARGIA jendeak eskuragarri izan eta irakur dezan.

ARGIA taldeari aukera berri bat irekitzen dio planteamendu honek. Orain arte enpresak berak egin izan du harpidetza eta hor bukatu da tratua; baina zozketarena bezalako aukerek abanikoa zabaltzen dute beste modu bateko elkarlana egiteko eta harremana enpresarekin soilik izan beharrean bertako langile edo sozioekin ere izateko. ■

“Zuei eskerrak, taberna dugu Azpeitian eta aldizkari hau falta zen apalean, hemendi aurrera han izango da ikusi nahi duenarentzat”

Susana Garate,
ARGIAkoa

Sarean arrantzatua



AGENDA

Lanki Ikertegiak eta HUHEZI-MU-k antolatutako IV. Kooperatibagintza Topaketetan ARGIAko esperientzia azalduko du Iraitz Agirre kideak.

- “Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala” ekitaldiaren barruan ekainaren 10ean, Eskoriatzako HUHEZI fakultatean, goizeko 9:00etan hasita. Lurrari atxikitako esperientziak azalduko dira, besteak beste Bartzelonako Sans Auzoa, Ipar Euskal Herria, Ipar Irlanda eta Quebec-i buruzkoa.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.

Ventana al Valle proiektua

KUBATAR NORTASUNAREN LEIHOAK ZABALIK GERNIKAKO ASTRAN

Kubako Pinar del Río probintziako Viñales herrian Ventana al Valle proiektu soziokultural komunitarioa jarri zuten abian 2010ean, bertako kultura adierazpen jatorrei duintasuna eta bultzada emateko xedez. Proiektuak lagun ugari ditu gurean; horiek antolatu dute Ireki Leihoa Kubari jaialdia Gernikako Astran, ekainaren 10 eta 11n, Ventana al Valle ezagutzera emateko eta laguntza biltzeko asmoz.



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: VENTANA AL VALLE

Viñaleseko harana Gizateriaren Kultura Paisaia izendatu zuen UNESCOk 1999an. Paisaia horren ezaugarriarik behinena harana inguratzen duten *mogote* ize-neko kareharrizko muino biribilduak dira. Baina geologiaz harago, bertan bizi direnek garatutako kultura da kultura paisaia, ingurunearen eta gizakiaren arteko elkarrekintza. Adibidez, jendeen eta lurraren arteko harremanetatik sortu zen tabakoaren kultura Kuban, eta azken 200 urteotan garatu da Viñalesen, munduko tabakorik onenetakoa ematen duen Vueltabajo eskualdean. Hori bezala kolonizaziotik aurrera garatutako beste hainbat adierazpen sinkretiko eta jator aurkituko ditugu Viñalesen: yoruba eta kreole dantzak, dezimismoa eta repentismoa, ahozko literatura eta beste asko, *kubania* esaten dioten izaera ukiezin hori osatzen dutenak.

Viñaleseko gizarte txikian aldaketa handiak izan dira azken urteotan, irla osoan bezala, baina bertan berriagoak dira eta azkarrago ari dira gertatzen al-

daketok. Duela gutxi arte, erabat nekazaritzari emana zen Kubako mendebaldeko herri hau, *guajiroa*, hangoen izendapena hartuta. Turismoak, berriz, goraldia ekarri dio herriko ekonomiari, baina nagusiki ostatatzearen inguruan eta zerbitzuen arloan dihardutenei eman dizkie dibisak, eta biztanleen arteko ezberdintasun ekonomikoak areagotu dira. Kulturari dago-kionez, Ventana al Valle proiektuko kide Miguel Angel Díaz Catalá idazlearen esanetan, “zenbait kultura-kontsumo ohitura arrotz nagusitu dira, herriko kultura tradizional eta herritarrarekin zerikusirik ez dutenak, eta nagusiki turismoaren bidez sartzen ari dira”.

Bestalde, AEBekiko harremanak normaltzearen eta irlan egon diren lege aldaketen ondorioz, turismoaren igoera handia aurreikusten da datozen urteotarako: “Kuba gero eta sartuago dago mundu globalizatuan, eta turismoak gero eta leku handiagoa du Viñaleseko bizitza sozial eta ekonomikoan”, uste du Díaz Catalák.

Kultur adierazpide ugari lantzen dituzte Ventana al Valle proiektuan: musika, dantza, repentismoa, antzerkia...



Kubaren nortasuna sustatzeko leihoa

Eragin horiez kezkatutako kultura eragile batzuk biltzen hasi ziren, horien artean Díaz bera, Daysee Amador irakaslea eta Ricardo Alvarez historialaria, eta 2010ean Ventana al Valle proiektu komunitarioa aurkeztu zuten, eskualdeko eta Kubako kultura nortasunaren ezaugarriarik behinenak zaintzeko eta sustatzeko helburuz, belaunaldi berrietarako transmisioan arreta handia jarrita. Proiektuak harrera ona izan du he-



rrian, eta jende asko ari da esku hartzen. Dantza eta antzerki taldeak antolatu dituzte, baita musika, repentismoa, historia eta pintura lantegiak ere. Emanaldi ugari egin dute inguruetan Arison eta Arichiqui dantza taldeekin eta hainbat sari jaso dituzte, azkenetakoa Kuba oso-ko Iraultzaren Defentsarako Batzordeek (CDR) emana. “Auzoko gauak” izeneko emanaldi ugari egin ohi dute eta horien berri ematen dute ventanaalvalle.org webgunean eta Facebooken.

Baina proiektuak hazi egin nahi du, eta orain kulturagune bat eraiki nahian ari dira, beharrezkotzat baitute sortzaileek euren lanak agertuko duten *ranchón* edo antzoki modukoa. Duela urtebete hasi ziren lanak, hainbat oztopo burokratiko gaindituta. Agertokia, aldagelak, grabaketa estudioa eta beste azpiegitura batzuk izango dituen eraikina altxatzen ari dira, baina sarri lanak gelditu egiten dira, material edo diru faltagatik. “Tokiko administrazioak,

» 2010ean aurkeztu zuten Ventana al Valle proiektua, eskualdeko eta Kubako kultura nortasunaren ezaugarririk behinenak sustatzeko helburuz

egun, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza lehentasunezkoak izanik, ezin dio proiektuari dirurik eman, baina beste laguntza mota batzuk ematen dizkigu eta haren onarpena dugu”, azaldu du Díaz Catalák.

» Turismoak goraldia ekarri dio Viñaleseko ekonomiari, baina nagusiki zerbitzuen arloan dihardutenei eman dizkie dibisak, eta biztanleen arteko arteko ezberdintasun ekonomikoak areagotu egin dira

» ‘Kubania’-ren funts ukiezin horien bila hurbiltzen dira bisitari batzuk Viñalesera, eta Ventana al Vallen aurkitzen dute Kuba osoan gero eta atzematen zailagoa den espiritua

Beren burua finantzatzeko asmoz, gela bat prestatu dute turistak hartzeko. Etxe pribatu baimenduetan egiten da ostataztearen zati handi bat Kuban, eta horrek, turistei herritarrak hobeto ezagutzeko aukera emateaz gain, irabaziak sozializatzen ditu hein batean. Ventana al Vallen kasuan, turismoaren ondorio txarra –ezberdintasunak sortzea– kendu eta komunitatearentzako onura bihurtzen da. Bigarren gela bat gaitzeko lanean dabilta eta udarako prest izango dute. Hala ere, hori eraikuntza ordaintzeko nahikoa ez eta Euskal Herriko lagun batzuk antolatu egin dira proiektuari elkartasuna bideratzeko, irlan bizi diren zenbait euskaldunen laguntzarekin.



HAUSNARKETA, KULTURA ETA JAIA, 'IREKI LEIHOA KUBARI' JARDUNALDIEN BIGARREN EDIZIOAN

Iragan urtean Gernikako Astra kultura fabrikako lagun batzuk izan ziren Ventana al Vallen, eta hortik sortu zen Ireki Leihoa Kubari jaialdiaren bigarren edizioa bertan egiteko ideia. Aurrekoa Abadiñoako gaztetxean egin zen 2014ko azaroan.

Astrako jaialdia ekainaren 10 eta 11n egingo da. Lehenbiziko egunean elikadura burujabetzaz jardungo dute EHNE Bizkaiaiko eta Allende Salazar ikastetxeak. Ondoren, Andoni Egañak, Xabi Payak eta Jon Martinek repentismoa izango dute hizpide –eta bertsotarako

gai–, Josu Goikoetxea gai jartzaile lanean dela.

Ekainaren 11ko egitaraua Euskadi-Kuba elkarrekin antolatutako *Zer ari da gertatzen Kuban?* hitzaldiarekin hasiko da. Arratsaldean, berriz, Ventana al Valle proiektua aurkeztuko dute, eta bien tartean elkartasun bazkaria egingo da. Horrez gain, dantza eta musikari lotutako hainbat ekitaldi izango dira bi egunetan zehar.

Bestalde, ekainaren 18ra arte Kubari eta Ventana al Valleri buruzko erakusketa izango da zabalik Astrako lehenengo solairuan.

Euskal Herriarekin lotura

Kanpoko bisitari ugari igaro da azken urteotan Ventana al Valle proiektutik, horietako asko euskaldunak. Euskal Herrian bizitzen egona da Díaz Catalá, eta hortik etorri zitzaion hastapenetako harremana euskaldunekin. Gerora proiektuaren berri ematen aritu da eta urtero euskaldun ugari bisitatzen du. Izan ere, *kubania*-ren funts jator, ukiezin eta batzuetan zehaztugabe horien bila hurbiltzen dira bisitarietako batzuk Viñalesera, eta proiektuan aurkitzen dute Kuba osoan gero eta atzematen zailagoa den espiritua, sorkuntza giro irekian.

Euskaldunek konplizitate berezia sumatzen dute hasieratik Ventana al Vallen, irlako beste leku askotan ez bezala, han jendeak Euskal Herriaren berri baitu. “Familia giroa da, beharrian kul-

turalak oso antzekoak dira munduko bazter guztietan, baina han oso inplikaturik ikusi dugu jende asko. Leku fisikoa oraindik lortu gabe ere, proiektua hain bizirik egoteak harritu ninduen”, dio iaz han egondako Naroa Idoiaga gernikarrrak. “Beste asko bezala, bizpahiru egun emateko asmoz hurbildu ginen Viñalesera, eta proiektua ezagututa astebete baino gehiago geratu ginen”.

Euskal kudeaketa taldeak hainbat ekintza antolatu ditu egitasmoa ezagutarazi eta harentzako laguntza biltzeko: erakusketak, hitzaldiak, azoketan materiala saltzea... Amparo Loizaga da talde horretako arima, eta pasioz mintzo da proiektuaren inguruan: “Maitemindu ninduen jende hauek beren identitatea bertokoen zein bisitarien artean aldarrikatu eta zabaltzeko duten grinak;



1999an Gizateriaren Kultura Paisaia izendatu zuten Viñales. Besteak beste, tabakoaren kultura oso garatuta dago eskualdean, munduko tabako onena ematen omen duten Vueltabajoko eremuei esker.

Euskal Herriak ere, desberdintasunak gorabehera, horrelako aldarrikapena egin du eta harro gaude gure kulturaz", dio Loizagak. Bertakoek bertakoentzat egindako proiektua da Viñalesekoa, bai-

na kulturen arteko topagunea ere bada, Loizagak dioenez: "Txalapartari edo bertsolariak badoaz, bertan aritu behar dute, hangoekin batera, hartu eta emateko lekua baita". ■



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

euskararen_agenda_app

Euskararen agenda
**Geu, Alea, Dijitalidadea
eta Gasteizko Udala**
elkarlanean gauzatutako
egitasmo publikoa da.

Gasteizen eta Araban
euskaraz antolatzen
den guztia jasotzea eta
zabaltzea du xede.

Ikusi hemendik aurrera
**Gasteizen euskaraz izango
diren guztiak** euskararen
agenda doako aplikazioaren
bidez.

Hemen eskuratu:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Pertsona politikoki okerrak



Saioa Ruiz



Jende desegokia

GAIZKA ZABARTE

Susa, 2015

Egoki eta desegoki denaren gaineko ikuspuntu eta iritzi infinitu dagoela esan ohi da, gizaki adina. Har dezagun, baina, desegoki terminoa eta saia gaitezen hau definitzen. Gertatzen dena da, pertsona bat edo ekintza bat desegokitzen jotzeko, erreferente gisa funtzionatzen duen irizpide baten beharra dugula. Eta hura, gehienetan, gizartean egokitzen hartu ohi diren jarreraren arabera eraikitzen da. Hortaz, esan daiteke bata dela, bestea ez denaren arabera eta alderantziz. Desegoki terminoa ezin da bere aurkakorik gabe definitu. Honenbestez, niri galderak sortzen zaizkit: beti kontrakoak izan behar dutela baieztatzen duen ideia horretatik, esan nahi baita, ez al dago desegoki den pertsona edo ekintza egokirik? Beste modu batera formulatzearen, desegoki hitzak beti al du konnotazio negatiboa? Egoki dena izan al daiteke desegoki? Eta alderantziz?

Horrelako galderak eta beste asko formulatzera bultzatzen gaitu Gaizka Zabarteren *Jende desegokia* (Susa, 2015) eleberriak. Ikusten denez mugak oso lausoak dira, eta buru-jan antzeko baten biktima izanena da Peter Zuazo izeneko pertsonaia, Desegokiaren Elkartetik email bat jaso ondoren. Email horretan, DESegoki izeneko jardunaldiaren parte hartzeko eskatzen diote. Noski, Peterren lehen inpresioa, edozein pertsonak izango lukeenaren antzekoa izanena da: zergatik ni? Desegoki al naiz? Zer egin dut pertsona desegokitzen har nazaten? Hitzaren konnotazio negatibotik abiatuta, bere bizitza birpasatzearekin ekingo dio pasarte desegoki baten bila. Honela jakingo dugu, *Postariaren mendekua* eta *Uzkitik isuritakoak*

izeneko lanen idazle infrarrealista damutu bat dela, postan lan egindakoa zela moto istripu batek jarduna geldiarazi zion arte. Zuazo pertsona bakartia da, gizartetik isolatua bizi dena. Laburbilduz, anakoreta bat, eta askoren begietan pertsona desegokia. Antzera gertatuko da gainerako pertsonaiekin. Eleberria, pertsonaiekin bizitzen etengabeko aurrera-atzera eta alderantzizko ibilbide bat da. Egitura aldetik ez da liburu sinplea. Kapitulu batetik besterako saltoak zenbaitetan hain dira bat-batekoak ezen, behin baino gehiagotan, haria berreskuratzeko zailtasunak izan baitituzte. Nolanahi ere, oinarritzkoena ulertzeko gauza izan naiz, eta eleberriak aurrera egin ahala, konturatzen gara jende desegoki honek guztiak baduela sozialki integratzeko zailtasunik. Egokitu eziniko pertsonaia hauek 80ko hamarkadan kokatzen dira, ukazioa legetzat izan zuten urteetan hain zuzen ere. Eta gu, irakurleok, ekintza eta jarrera artistiko politiko desegoki horien lekuko bilakatuko gara. Baina, kasu honetan, zein da desegokitasun terminoari eman beharreko konnotazioa? ■



Gaizka Zabarte
zaldibartarra
bigarren eleberria
eskuetan duela

JON URBE

» **TELEGRAMA**

Maiatzaren 26an hasi zen Zarauzko **Rockumentalak** zikloa eta ekainaren 10ean *DIG!* dokumentala eskainiko dute; bi talderen gorroto eta amodiozko harremana kontatzen duen filmaren ostean **The Lookers** taldeak kontzertua emango du *STOP Through the eyes of girls* liburua aurkeztuko dute Bilboko Libu liburu-dendan ekainaren 10ean 19:00etan: argazki-liburu ikusgarriak Kalkutara bidaia proposatzen du *STOP* Bartzelonatik **Nueva Vulcano** taldea etorriko da Tolosako Bonbereneara ekainaren 11ean. Etortzen diren aldiro jarraitzaile gehiago dituzte, zerbaitengatik izango da *STOP*

» **MUSIKA**

Amaiera tristea



Montse Auzmendi

Mozart, Beethoven eta Brahmsen lanak

LUDWIG HIRUKOTEA

ABEL TOMÀS, BIOLINA.
ARNAU TOMÀS, TXELOA.
AMIR KATZ, PIANO.

Gasteizko Principal Antzokia.
Maiatzaren 26a.

Ludwig hirukotea: Tomás anaia katalanak eta Amir Katz israeldarra.



Hobeto esanda, penagarria. Eta tristee-na da artista paregabeak eta interpreta-zio akatsgabea izan genuela Kontzertu Handien XI. Zikloaren bukaera honetan. Baina ia publikorik gabe geratu ginen Principal Antzokian, eta hori izan zen saioaren alderdi tamalgarria. Ze pena hain momentu ona disfrutatzea eta aldi berean konturatzeko giro benetan hotza egon zela. Lehenengo zazpi lerroak hutsik izatea ez da akuilu onena musikari batentzat. Hala eta guztiz ere, Ludwig hirukotea profesionaltasun osoz aritu zen, eta magia eta lilura hedatu zituen antzokian.

Agian, Gasteizko entzuleriak orkestra handi bat eta sona handiko bakarleri bat behar du bertaratzeko, egia da, baina kontzertu honetan gertatutakoak aukera ematen digu ohartzeko zer-nolako kultura eza bizitzen ari garen.

Hori bai, esan bezala, hiru artista ikaragarri ikusi genituen taula gainean. Tomàs anaiak aski ezagunak dira musikazaleon arteak, Casals laukote famatuaren sortzaile eta kideak direlako. Musikari kezkatsu eta geldiezinak direnez, formazio bat baino gehiago sortu dituzte. Oraingo honetan,

Amir Katz pianista israeldarrarekin batera Ludwig hirukotea osatzen dute, eta laukotearekin bezala, arrakasta izugarria lortzen ari dira mundu osoan.

Hirukoteentzako lanen arteko hiru maisulan ekarri ziguten egitarauan, zein baino zein zoragarriagoa. Hain delikatu den Mozarten *Divertimento a si bemol maiorrean KV 254* arin eta jostalaria atera zen, haizeduna, esfortzu gabea, lan aproposa saioa irekitzeko. Mozartetik Beethovenera iritsi ginen. Konpositore honen *Hirugarren trioa do minorrean op. 1* lan sakona da, erabat klasikoa, baina bere garaikideentzako efektu bereziak izan zituena, antiklimax moduko amaiera bezala. Bai Mozart bai Beethoven, biak puntu-puntu interpretatu zituzten Ludwig hirukoteko kideek. Zinez deigarria izan zen hiruren arteko doitasuna eta “arnasa bakarra” nolabait esateagatik.

Baina arratsaldeko lan ederrena, dudarik gabe, Brahmsen *Lehen trioa si maiorrean, op. 8* izan zen. Konpositorearen lehen ganbera-musikako lana da, 20 urte zituela konposatutakoa, baina lehenengo urteetatik nabaria zen musikariaren imajinazioa, heldutasuna eta segurtasuna. Tomàs anaiek eta Amir Katzek bikain egin zuten obra (zein ederra egin zuten balts moduko *Scherzo*). Publiko gutxi izan ginen baina txalo handiak entzun ziren. Bis bezala, Fritz Kreisleren *Martxa vienarra* jo zuten, oso berezia, xarmagarria. ■


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS



WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



Egilea: Ana Zambrano

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Anabel Arraiza aktorearen esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

		3		2	1	6		
					3	7	4	9
				5				1
8		6			4	2		
9								6
		7	2			4		3
1				3				
7	6	2	1					
		8	6	4		1		

				6		3	1	
3	1							9
		9		1			2	
	8		1			2		
1			5		4			8
		2			9		3	
	9			4		1		
2							7	5
	4	6		5				

Azkenak

Koka ezazu erantzun bakoitza bere tokian. Koloreztatutako laukietan egokitutako hizkiak batuz Bizkaiko bi hondartzaren izenak lortuko dituzu.

A

Gainez eginez

Fedea duena

Lehen hilabete

Jautiz

Eguzkitan dagoen leku

B

Idi-dema

Astero argitaratzen den aldizkari

Koipea duena

Begitartea, musua

Hemen bertan

Soluzioak

3	9	8	8	6	4	2	1	7	5
7	6	2	1	8	5	9	3	4	
1	4	5	7	3	9	8	6	2	
9	2	4	3	7	8	5	1	6	
8	3	3	6	5	1	4	2	9	7
6	8	9	4	5	7	3	2	1	
2	5	1	8	6	3	7	4	9	
4	7	3	9	2	1	6	5	8	

Puzzlea: "Guk transmititu nahi ditugun baloreak dira elkartasuna, auzolan, bizikidetzaz, natura, osasuna, kultura, euskara eta zientziaren aldeko jarrerak".

Azkenak: A: Gainezka, fededuna, urtarri, jautiz, eguzkipe. B: Idi-proba, astelehen, koipea, hementxe. (BARINATXE)

Laura Shine. Dastamenaren deseraikitzaile



Entomofagia deitzen zaio intsektuez elikatzeari. Orokorrean, ideiak berak gohaindura sortu ohi digu mendebaldarro. Alta, 2.000 milioi herritarren egunerokoaren parte izaten da elikadura-molde hori. Nazka sentimendu hori kulturalki eraikia dela dio Laura Shine quebectar ikerlariak. Sentimendu hori deseraikitzeko pausoa emanik, intsektujale sutsu bilakatu da.

“Osasungarriak ez ezik, sukaldaritzarako biziki interesgarriak dira intsektuak”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

Alternatibak

“Elikadura mugimendu alternatiboek erakarri naute betidanik. Entomofagia oso gutxi ikertua izanki, horri lotu nintzen doktoretzarako. Ordutik geroztik, intsektuak dastatzen eta zapore ezberdinak aurkitzen nabil. Uda honetan adibidez, baratzekeko marmutxa kaltegarriak esploratuko ditut; alferrik hil beharrean, janen ditut”.

Kilker baserri baten sorkuntzan parte hartu zenuen. Zer itxura du intsektu baserri batek?

Intsektuaren arabera forma ezberdinak daude. Hemen kilkerak ala tenebrionen larbak ditugu usu. Ontzi batzuk dira; kilkerrei arrautza ontziak gehitzen dizkiegu, aztaparka igotzea gogoko dutelako. Tenebrionei barazki freskoak, abere-dian dabilatzanez. Baserri bat badut so-toan eta irina, oroa, zahia eta barazki zurikinak ematen dizkiet, besterik ez.

Edonork ukan dezake baserria.

Bai, eta hori da interesgarria. Horma-armairu batean lekuño bat ukanez gero, eraiki dezakezu bat. Hiritarrek baserri bat behar dute, kutsadura dela-eta ezin dutelako edozein intsektu jan.

Gutxi kutsatzen duen ekoizpena da.

Tokian tokiko ekoizpena izanki, garraiorik ez du eskatzen. Ugaztunei alderatuz, berotegi efektuko gas gutxi eragiten dute. Ur eta elikagai arras gutxi eskatzen dute ere. Horrez gain, behargabeko xahutzerik ez da, maiz intsektu guztia

jan daitekeelako. Idi ala zerri batekin ez da horrela, sekulako hondakinak daude.

Goseteari aurre egiteko aterabidea izan daiteke. Hori dio behintzat Nazio Batuen Nekazaritza eta Elikadurarako Erakundeak.

Ez da aterabidea, baina aterabideetariko bat izan daiteke. Ez dut mirakuluzko irtenbideetan sinesten. Maiz entzun izan dugu horrelakorik elikaduraren arloan, eta emaitza txarrak besterik ez ditu ondorioztatu. Tofuaz dena gauza on entzun genuen eta begira orain soja transgenikoen monokulturei! Trumilka ekoizten hasten bagara, arazoak ondorioztatuko ditu.

Interes finantzario bat ikusiz gero, kasu ez ote duten Monsantoaren gisakoek ekoizpena garatuko.

Zurumurruek diote jada horretan dabilatzala eta mentalitateak nahiko irekiak izatearen beha direla merkaturatzeko. Ekoizpen industrialaren garapenaren arriskua hor dago. Horregatik ditugu tokiko ekoizpenak bultzatu behar. Zergatik ez genituzke kolektiboki hiri mai-



"Intsektuen jateak sortu nazka kulturalki eraikia da. Ume batek txindurri bat ikusi eta dastatuko du, baina laster etorriko zaizkio gurasoak zikina dela erranez".

lako baserri batzuk garatuko? Elikadura burujabetzaren izpirituari segi doa proiektu hori.

Munduko Osasun Erakundeak ere entomofagia babesten du.

Bi miliar herritar dira intsektujale. Elikadura-molde hori goseteari lotu ohi dugu, baina ez, usu zaporeagatik dira sukaldaturik. Mendebaldeko kulturak murgildu nahian, praktika hori bazterrerera uzteko joera dute maleruski. Horrek ondorio kaltegarriak ditu haien osasunean eta bizimoduan. Gainera, nekazaritza industrialak esportaturik, pestizidaz estalirik dituzte eremuak. Beraz, entomofagiaren ikerketa gomendatzen du erakundeak, kultura gastronomiko horrek arriskurik gabe jarraitu ahal izateko. Intsektu mota batzuen gainbeherari aurre egiteko ere balio luke. Zentzu horretan da goseteari aurre egiteko soluzio bat, argi delako ez garela mende-baldarrok elikadura eskasian kausituko.

Ezaugarri nutritiboak zein dira?

Kantitate bera hartuz, idikian bezain-

bat proteina duzu kilker batean, baina gizen arras gutxiagorekin. Proteina askodunak eta mineralez edota bitaminez aberatsak dira. Kostu ekologiko zinez apaleko elikagai aberatsa da.

Zer gustu dute?

Haragiak zer gustu duen galdetzea bezala da: okelaren arabera zapore ezberdinak ditugu. Txindurriak izugarri azidoak dira, erleen larbak oso azukretuak, kilkerrek berriz lur gustua dute, kakaoa eta onddoaren gisa. Osasungarriak izateaz gain, sukaldaritzarako biziki interesgarriak dira.

Bi miliar herritar intsektuak jaten eta gu berriz ideiak berak okaztaturik.

Gohaindura sentimendua unibertsal da, baina oinarrian kausitu gauzakiak dira kultura batetik bestera ezberdintzen. Mokordoen ala hilotzen gisa, gauzaki batzuek gohaindura sortuko dute ia kultura guztietan, babes forma bat dago horren oinarrian. Intsektuen jateak sortu nazka kulturalki eraikia da. Ume batek txindurri bat ikusi eta dastatuko du,

baina laster etorriko zaizkio gurasoak zikina dela erranez. Intsektuak zikin-keriari eta osasungaitzari lotu ditugu, guztiak zare berdinean ezarritik; alta, ha- maika izaera daude.

Alta, gure arbasoek jaten zituzten.

Erromatarren eta grekoen testu anitzetan agertzen da hori. Testamendu zaharrak finkatzen du zein intsektu jan daitekeen eta zein ez. Kasher ikuspegiari segi, jauzi egiten duten intsektuak jan daitezke soilik. Afera kodetu izanak frogatzen du ohitura nahiko hedatua zela. Oraindik kausi ditzakegu arrasto batzuk: adibidez, Sardinian harrez beteriko Casu Marzu gazta jaten dute eta AEBetako ekialdean, zazpi-zortzi urte guztiz agertzen den txitar espezie bat jateko ohitura dute.

Laster ukango ditugu intsektuak gure apairuetan?

Kategoria eraiki horiek etengabeko bilakaeran dira. Ez dut uste hamburger berria bilakatuko denik, baina bai, geroz eta leku handiagoa hartuko dute gure elikaduran. ■



“Erraustegiko keak birrikak garbitzen ditu”, dio Iñaki Arnasagasti espezialistak



Berriki zabaldu den ikerketa zientifi-zientifiko batek frogatu duenez, errauskailu moderno baten tximinia da bizitzeko lekurik osasungarriena. “Asteasuko familia oso bat eduki dugu bi urtez holako batean sartuta eta ateratakoan birrikak garbiago

zeuzkaten ez-erretzaile batek baino”, azaldu du ikerketaren zuzendari Iñaki Arnasagasti txit doktore jakintsuak, Zabalgargiko labeetako batean emandako prentsaurrekoan. Atzeko ilarako kazetari batek erdi lotsatuta aipatu dio mediku batzuen arabera

errauskailu batetik hurbil bizitzeak minbizia izateko arriskua handitzen duela. “Eta nor dira mediku batzuk jendearen osasunaz ezer esateko?” arrapostu du Arnasagastik duintasunez beteta, bere ile-kalparra atzeraka orraztu bitartean.

Podemosek, etsita, Javier Madrazori eskainiko dio EAEko lehendakariyai izatea

Garbiñe Biurrun eta Iñigo Lamarcaren ezezkoak jaso eta gero, Euskadiko Podemoseko zuzendaritzak erabaki du datozen EAEko hauteskundeetarako lehendakari-gaia aurkitzeko etxe barruan bilatzea dutela onena. “Bueno, zer, orduan Madrazo, ezta?”, esan dute aho batez, elkarri begira bi

minutu pasa eta gero. Beranduegiri adierazi diotenez, erabakia hartzean kontuan izan dute Ezker Batuko buruzagi ohiak Jaurilaritzako sailburu modura duen eskarmentua: “Hala ere berarengan konfiantza dugu”, esan dute.



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzean* jasotzen den bezala, gaur egun, iraultzailea den gauza bakanetako bat baratzea da. Lurrarekiko lotura, elikadura burujabetza, bertako mozkinak, bioaniztasuna, osasuna, bizitza kalitatea, paisaia kulturala. Zer da ba iraultza? ARGIA burujabetzaren aldeko apustua egiten dugu, bai elikadurari dagokionean, baina baita komunikabide bezala, informazio burujabetzaren bidean ere.

EKAIKEKO ZOZKETAK



Mugarik gabe GKE
Material sortak

www.mugarikgabe.org



Jakion produktuak
Kontserba saskiak

www.jakion.es



Euskal Herriko Laborantza
Ganbararen DVD eta liburu sortak

www.ehlgbai.org



Jakoba Errekondoren Bizi
Baratzea eta Ilargiaren egutegia

www.bizibaratzea.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

euskalerriairratia^{eus}



98.3 FM

Euskalerria Irratiaren **frekuentzia berria.**
Iruñerriko euskaldunon **frekuentzia berria.**
Legezkoa, kalitatezkoa, independentea.

Zorionak, Iruñerria!
Denon frekuentzia, denon garaipena!

euskalerria  irratia^{eus}

98.3 FM